

# GUaiXE.net



**Asteburuan**  
**Botxa finala**  
**Irurtzunen**




**Kirolak >> 17**

**Artiekaliak** Etxarri Aranazko plazak **Ranblak** bihurtuko ditu. Herriko **sortzaileak** euren lanak erakustera gonbidatuta daude



**Kultura >> 21**



## Berpiztearen sua

>> 23



## Aldaketaren atean

>> 3/11



**Goi tentsioari**  
**ez galdeketetan**

Eta hitzaldiak  
Lakuntzan eta  
Altsasun

>> 6



**Sakantzenen**  
**III. Jardunaldia**  
**Olatzagutian**  
**bihar**

>> 5



**San Joan festak**  
**Izurdiagan,**  
**Uharte**  
**Arakilen eta**  
**Arbizun eta**  
**udako**  
**solstizioko**  
**ospakizunak**

>> 14-16



**Portlandegian**  
**29 kaleratze**  
**iragarri**  
**dituzte**

>> 12

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu  
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Uxue Lacalle Etxarri**  
ZORIONAK gure etxeko polittari! 5. urte igandean!! Oso ongi pasa eta muxu asko asko.



**Intza Arregi**  
Zorionak lehenik jaunartzeagatik; eta baita 9 urte puska egiteagatik. Zure festan oso ongi pasa ezazu eta muxu handi pilo bat familiaren partetik.



**Beñat Lz. Gauna Etxagibel**  
ZORIONAK Beñat! Bi bi bi... biiii!!!! Ze indarrez itzali zenituen kandelak! Muxu potolo ama, aita eta Onintzeren partez.



**Iraia ZORIONAK PRINTZESA!!**  
Ondo pasa eta mila muxu zuretzat!!



**ZORIONAK IXONE!!**  
Zorionak marisorgin! Buff, 8 urte! Neskatxa bat eginda zaude! Segi beti bezain txintxo maitia, oso harro gaude eta! Muxu haundi bat aita-txo, amatxo eta Kimetzen partez.



**Ane ZORIONAK zure urte betetzean!!**  
Muxu haundi bat denon partetik.



**Ino**  
Oso pertsona eta andereño ona zara. Beti bihotzean eramanen zaitugu. Eskerrik asko zaren bezalakoa izateagatik. Faltan somatuko zaitugu. Muxuak, Nahia eta Yera!



**Miteku Jaka ZORIONAK!!**  
Ongi pasatu egun hauetan!! Muxu asko etxekoan partez.

**Bazkideek deskontua**

**Bakarra:**

**3,50€**

**Bikoitza:**

**7€**

## garagarriak

# 21-27

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Dj Loro+artista gonbidatuak.**  
Garagarriaren 21ean, ostiralean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

### Magia

**Hodei Magoa.** Garagarriaren 22an, larunbatean, 18:30erako Altsasuko lortia kultur gunean.



### Dokumentalak

**Nagore.** Garagarriaren 21ean, ostiralean, 19:30ean Olatzagutiko kultur etxean. Ondoren solasaldia:

Alicia Pano (berdintasun teknikaria), Nagore Huegun (soziologoa) eta Asun Casasola (Nagoreren ama).

### Bideo emanaldia

**Enpresa elektrikoaren negozioa.**  
Garagarriaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako plazan.  
**Autopista Elektrikorik Ez!**

### Mendi irteera

**Lapoblacion.** Garagarriaren 23an, igandean, 7:00etan Olaztitik abiatuko da autobusa herrietara. **Sakanako Mendizaleak.**

**Ernio.** Garagarriaren 23an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak.

### Txirrindulari irteerak

**Beriain.** Garagarriaren 23an, domekan, 9:00etan Altsasuko Burunda txirrindulari taldearen mendi bizikletako egoitzatik. 35 km.

### Hitzaldiak

**Goi tentsioko lineari buruzko informazio saioa.** arilaren 26an, asteazkenean, 18:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlariak:** Nafarroako Gobernuaren teknikariak eta Iberdrola eta REEko ordezkariak.

### Tailerrak

**Adimen emozionalaren bidezko heziketa.** Garagarriaren 21ean, ostiralean, 9:30etik 11:00etara Olatzagutiko Akelarre ludotekan.

### Bestelakoak

**Etxarriko Ranblak.** Garagarriaren 21ean, ostiralean, 18:00etatik aurrera Etxarri Aranazko plazan. **Artiekalia.**

**Arbizu 1813-2013.** Garagarriaren 22an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Arbizon.

**AD Eren azoka.** Garagarriaren 22an, larunbatean, 10:00etatik 20:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

**III. Lan Jardunaldi Irekia.** Garagarriaren 22an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Olatzagutiko kultur etxean. **Sakantzen Sarea.**

**Enneco, Haritzaren memoria zentroa. Balorazioak. Iritziak. Ideiak. Proposamenak.** Garagarriaren 25ean, asteartean, 20:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

**The art Confusion.** Garagarriaren 27an, ostegunean, 20:00etan Altsasuko Gernika tabernan. **Jokin Alegria eta DJ Nestorbo.**



Jokin Alegria margolaria DJ Nestorboekin ariko da.

### Deialdiak

**Altsasu memoria, aurkezpena.** Garagarriaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Garagarriaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Autodeterminazioari buruzko herri-galdeketa ukazioa salatze herri prentsaurrekoa.** Garagarriaren 21ean, ostiralean, 20:30ean Etxarri Aranazko plazan.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Garagarriaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Garagarriaren 24an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxean.

edo uhinbak aplikazioaren bitartez

Ostiraleko 9:30etik 10:30era **SAIOA**

**Asteburuko agenda**

**Asteko errepassoa: albisteak, kirolak, San Joanak, Kedada, Lakuntzako parkea...**

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

*Piztu irratia!*

## Atez atekoa Sakanan

Ostegunean jarriko da martxan ibarreko 8 herritan hondakin sistema berria

**Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutia** dira hondakinak gaika jasotzeko sistema berria mustuko dutenak (8.744 biztanle, sakandarren %42,1). Sakanako Mankomunitateak sustatutako aldaketa horrekin hondakinen birziklatze tasa handitu egin nahi da. Eta horretara behartuta gaude denok. Izan ere, 2014rako hondakindegiak itxi egin beharko dira eta 2020rako birziklatu daitezkeen materialik ezin izanen da erraustu, beraz, gehiago birziklatu beharko da.

Horiek kontuan izanik, 2010eko abenduan Nafarroako Gobernuak Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Plan Integratua (NHKPI) onartu zuen. Agiri horretan jasotako helburuen artean dago herrialdean materia organikoaren bilketa ezartzea eta %50 gaika biltzea. Gaikako bilketa horretan material inpropioak gehienez %10 izan behar du. Mank-ek legedira egokitzeko ahalegina da indarrean jarriko den sistema berria.

Orain arte materia organikoaren bilketa urtetan %24 inguruan mantendu da eta helburua %80ko birziklatze tasara iristea izanen da. Edukiontzia horian (ontzi arinak) Sakanan Nafarroako batz bestekoa baino 5 kilo gutxiago birziklatzen da. Edukiontzia urdinean (papera eta kartoia), berriz, Nafarroan baino 10 kilo gehiago.

**Materia organikoa**

Ostegunean hasiko da bilketa sistema berria martxan, hondakin organikoa jasotzeko egunetako batean. Organikoa jendearen kezketako bat delako. Hala ere, 4.000 inguru sakandarren materia organikoa jasotzeari utziko dio Mank-ek. 2.800 etxetan, gutxi gorabehera, konposta eginen da eta beste 2.000 pertsonak auzo-konposta egiteko izena eman dute. Materia organiko hori baratze, belardi eta lorontzietarako ongari bihurtuko dute. Eta horregatik Mank-en hondakinen tasan %15eko hobaria jasoko dute. Horrela ibarreko birziklatze tasa orokorra handituko da.

Etxarri Aranatz 60 familia-erendako jarritako konpostatze etxolak hainbat udal eta mankomunitateren interesa piztu du eta ereduaz egutzeko bisitan izan dira.

**Sakanan egina**

Aurrekontua aurreikusitako 1.017.000 euroetatik 750.000ra jaitsi da. %68a Sakanako 20 bat enpresetan gastatu da, besteak beste, Carpintería Garcandía, Igoarkin

# Aldaketarako atean



Zintzilikarioak jartzen ari dira Uharten, Lakuntzan, Arbizun, Etxarrin, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzin.



2.000 pertsonak auzo-konposta egiteko izena eman dute.

Estudio Arquitectura eta Talleres Irulizar. Hondakin sistema berriak 9 lanpostu sortu ditu.

**Parte-hartzeaz**

Mank-ek herrira eredu bat proposatu zuen. Herri bakoitzean egindako bileretan jasotako ekarpenen

kin moldatu da eredu. 1.800 pertsona joan dira 28 herrietan egindako bileretara. Gainera, konposta nola egin ikasteko ikastaroak izan dira. Horretaz gain, zalantzak argitzeko informazio bulegoak zabaldu ziren Irurtzunen, Etxarri Aranatz eta Olatzagutian.



## Beste herriak

**Arakilen, Irañetan, Arruzun, Ergoien eta Lizarragabengan** hondakinak biltzeko guneak jarriko dira eta haietan hainbat edukiontzia izanen dira. Herritarrek hango giltza izanen dute hondakinak dagokion edukiontzian hondakinak botatzeko. Horrekin batera, konpostagailuak (etxeokako edo komunitarioak) banatuko dira udalerritarrietan. Populazio eskasagatik eta arrazoi ekonomikoengatik hartu du erabakia Mank-ek. Bilketa sistema berria indarrean jarriko diren hurrengo izanen dira.

Irurtzunen sei hilabete gehiagoregonen dira edukiontzia herriko kaleetan. Aldi berean, Mank-

ek informazio kanpaina garatuko du sustatu nahi duen sistema mistoaren inguruan argibideak emateko. Hondakinen tasa ordaintzen duten irurtzundarrek hondakin bakoitza non utzi behar den azaltzen duen hiztegi bat jasoko dute. Materia organikoa bereiztearen garrantziaz gaztigatuko da eta etxeokako edo auzo konposta egitea nola egin erakutsiko dute.

**Irurtzunen** urte erdi horretan edukiontzietan jasotakoa aparte bildu eta jasotakoa pisatzen ari da Mank. Ondoren emaitzak baloratzeke bilduko dira aldeak. Eredu berria ezartzen bada, Irurtzungo Udalak aukera izanen du hari

**Eguneko hondakin bat**

Astelehen eta ostegunetan materia organikoa. Astearte eta ostiraletan ontzi arina. Asteazketan papera eta kartoia. Larunbatetan errefusa. Mank-eko langileak astean sei aldiz pasako dira hondakinak jasotzera, 6:00etatik 14:00etara. Sakandarrek hondakina bezperako 20:00etatik ateratzeko aukera izanen dute. Hondakin baten kantitate handietan dituenak edo oportetara joaten denak larrialdi guneetan uzteko aukera izanen dute.

**Informazio bideak**

**Bloga:**  
www.sakana-mank.com/hondakinak  
www.sakana-mank.com/residuos  
**Facebook:**  
www.facebook.com/sakanamank  
**Twitter:** www.twitter.com/sakanamank  
**E-posta:** info@sakana-mank.com

**Kontrako sinadurak**

Irurtzunen atez ateko hondakin bilketa sistemaren kontrako 700 sinadura jaso zituzten. Baina nortasun agiriak falta zitzuten, baliagarriak 600 besterik ez ziren izan. Sinatzaileen iritziz, Mank-en sistema "garestia da, pertzak zintzilik uzteak irudi txarra ematen du eta pribatasuna urratzen du".

Arbizun 258 arbizuarren sinadura jaso zituen Arbizuarra Plataformak. "Udalak inposatu nahi digun atez ateko sistema" ez dute la onartzen azaldu zuten. Ezarpenarako "kostu izugarriak" salatzeari batera, sistema berriak "eragozpen gehiago, eta norberaren intimitatearen eta pribatasunaren inbasio izugarria" ekarriko duela ziurtatu zuten. Hondakin organikoekin higie eta ingurumen ondorioak izan ditzakeela ustetu dute plataforman. Haiek biogas plantetan tratatzea proposatu dute. Ssistemka herriaren estetikan izanen zueneraginaz ere kezka azaldu zuten. Hondakinen bilketa sistemaren aukeraketan parte hartzen utziez zietelako kezka ere ziren, baita ezarpen prozesuaren azkartasunaz. 5. edukiontzia jartzea eskatu zuten.



Irurtzunen 6 hilabete gehiagoregonen dira edukiontzia.

buruzko herri-kontsulta egiteko. **Altsasuko** Udalak udazkenean egindako bilkuran hondakin bilketa sistema berriaren atzerapena irailera arte atzeratzea eskatu zion Mank-i. Horrekin batera, Altsasuko Udalak atez-atekoaren inguruko herri galdeketa egitea

erabaki zuen. Erabakia loteslea izanen da. Bilkura berean gaia aztertzeke udalean batzorde bat sortuz, "atez atekoaren eta dauden alternatibei buruzko informazioa emateko". Bestalde, Alde Zaharreko bizilagun talde batek auzo konposta egitea eskatu du.



Zoila Berastegi

# Erbesteaz naiz mintzo

astekoa

barrutik kanpora

## Udan ere espaloian mantendu!!!

Aristides Vargas-en hitzetan Brunak dio "niretzat erbesteak besarkada arazo bat da", eta Oskarrek "nolatan?". Bruna bere usteak azalpen bat behar duela ohar-turik, zera dio: "Begira, txikia nintzanean nire txakurra besarkatzen nuen eta nire gurasoak haserre bizian jartzen ziren, nire gelara erbesteratzen nindutela; gaztaroan mutil bat besarkatu nuen eta hark bakardadera erbestera ninduen; heldutzean ideiak besarkatu nituen eta nire herrialdetik erbestera nindu-

ten, erlijioa besarkatzeko saiakerak egitean jasotako kastiguak ez aipatzearen. Horregatik, egun, badaezpada, ez dut ezer ez inor besarkatzen".

Erbesteak beraz, beste (izan pertsona, animali, ideia edota dena delakoa) besarkatzearen ondorioz sarritan ezartzen den kastigu bat da. Mundu honetan maitatzea arriskutsua izan daitekeela ez ahazteko ahaleginetan, agian. Erbesteak bigorputzen artean zabalduak amildegi bat da edota azalean irekitzen den zau-

ri bat, hura josteko haririk gabe geratu den bihotzean.

Erbesteak besarkadak behar duen gertutasun hori apurtzeko inposatzen den distantzia bat da. Batzuetan, ate itxien itxura hartzen duena, bestetan aldiz ahotez beteriko isiltasunarena. Erbesteak badaki atzerri tartasun sentimenduak, bai norberaren ez den herri batean egoteagatik edota norbere barrenean nork bere burua arrotz bizitzeagatik.

Eta hau gutxi balitz, erbestera-

tua izateak pairatu ohi duen patua ezin ahaztu: Oroimenaren gaitarra; nola deitzen zen, nola zen... eta antzekoak. Oroitzapenak zainetan barna ezin eutsi dabilen gorputzaren saiakera tematia.

Euskal Herriak eta euskal herri-tarrok badakigu erbesteaz, bada-kigulako besarkadaz. Eta agian Brunak eginiko hautuan ez erortzeko (sekula gehiago ez erortzeko ez besarkatzearena alegia), memoria bizirik mantentzea da gure arma bakarra; etxera itzultzeko arma bakarra.

Erosketak egitera joan naiz eta dendariarekin izan dudana hizkeltaldia espaloian hutsez izan da.

Kalean betiko lagun euskaldunarekin topo egin eta "¿Qué pasa?" galdetu diot; ondoren erdara hutsean jarraitu dugu.

Lanean agurra baino ez dut egin euskaraz.

Lanetik irten eta tabernan kafesnea eskatu dut; tabernariak "e?" galdetu eta zuzenean "Un café con leche" esan diot. Kafesnea atera didanean "¿Cuánto es?" galdetu diot eta "Bat hogei" erantzun dit.

Kafea hartu bitartean honakoa pentsatu dut: Zein izan da ni erdarara pasatzeko arrazoia? "E" batek besteak euskaraz ulertzen ez duela esan nahi du? Egunean zehar nire hizkuntzak presentzia gutxi izan duela ohartu naiz. Gehienetan, gainera, ni izan naiz zuzenean gaztelaraz hasi dena, ohiuragatik edota beste pertsonak euskaraz jakingo zuen zalantza nuelako. Baina, zein da nire hizkuntza? Eta zein hizkuntzatan bizi nahi dut?

Nonbait irakurri nuen Bahametako biztanleak zuriekin topatzen zirenean espaloitik jaisten zirela; nik nire herrian nire hizkuntzarekin berdina egiten dut? Erdararen errepidera salto egiten dut?

Azken hilabeteetan asko izan dira galdera hauek beren buruei egin dizkieten altsasuarrak, eta euskaraz bizitzeko bideari ekin diotenak. "Dendara sartzean lehenengo hitza euskaraz egingo dut", "Nire koadrilan euskaraz hitz egingo dut", "Tabernetan euskaraz eskatuko dut", "Anaia-arebeekin euskaraz mintzatuko naiz",... Denetariko konpromisoak hartzeko prest agertu dira altsasuarrak.

Konpromiso xumeak eta erre-alak, baina, betez gero, Altsasun euskaraz bizitzea ahalbidetuko dutenak. Beraz, euskaraz bizitzeko hautua egin, segi konpromisoak hartzen eta betetzen eta EZ ZAITEZTE ESPALOTIK JAITSI!!!

EUSKARAZ BIZI!

Euskal Herrian Euskaraz

## hara zer dien

# Guraso eskolak

Asko dira Drogamenpekotasun Prebentzio Programatik hitzaldien, tailerren, topaketen... bidez gurasoekin lan egiten daramatzagun urteak, eginkizun sutsu eta korapilatsua den seme-alaben heziketan laguntzeko.

Gurasoek eguneroko egoerei aurre egiteko formazioa eskatzen dute, beren seme-alabek pasatzen dituzten momentu ebolutiboak ulertu eta era egokienean jokatu ahal izateko.

Eskaera hauei erantzuna emateko gure zonaldean gai zehatzekin lantzen diren tailerrez gain, "Guraso eskolak" jarri dira mar-

txan Olaztin, Altsasun, Etxarri Aranatzin, Uharteko Arakilen eta Irurtzunen. Topaketa hauetan gurasoek parte hartzen dute eta beren seme-alaben heziketari buruzko orientabidea eta aholkuak jasotzen dituzte profesional baten laguntzarekin.

Topaketa hauetan ez da gaia zehatz bat lantzen, momentuan ateratzen diren proposamenei, interesei, ardurei, kezkei... erantzuna ematen baitzaie. Familietan eguneroko martxan sortzen diren gaiak jorratzen dira, adibidez: arauak, mugak, semeen arteko jelsokortasuna, autorita-

tea, komunikazioa, bikotean irizki desberdintasunak, umeetan amesgaiztoak...

Topaketa hauen helburua baliabideak eta trebetasunak eskuratzeta da bizi pertsonal eta familiarra hobetzeko.

Guraso eskolak seme-alaben heziketa gaietan jantzia dagoen profesional batek zuzentzen ditu. Pertsona honek gaia jaso eta gogoetara gonbidatzen ditu parte hartzaileak. Gaia taldeko pertsona batek planteatzen badu ere, oso lagungarria da talde osoarentzat gehienetan ditugun zailtasun edo kezkek antzekoak

izaten direlako eta era batean edo beste gure emozioak ikutzen dituzten gaiak izaten direlako. Esparru honetan konturatu gaitzke egoera batzuk ez zaizkigula guri bakarrik gertatzen eta honek lasaitasun apur bat eman ahal digu. Taldekideak lehen egunetik parte hartzea garrantzitsua da, taldea sendotzeko eta gaiak lasaitasun gehiagorekin lantzeko.

Seme-alaben kurtsoaren bukararekin batera, guraso eskolak bukatzen ari dira eta jaso ditugun ebaluaketak oso positiboak izan dira, parte hartzea geroz eta handiagoa da eta gurasoek hauen jarraipena eskatzen dute. Animatek parte hartzerari!

Prebentzio Programak

## gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

## Negoioaren dibertsifikazioa eta enplegu galera Portland-en

Gorka Muñoz

Bere errausketa proiektua UGPrS (Olaztiko udal araudia sailhesteko plana) moduan tramitatua izateko, Portlandek jardura berria lantegiko 148 lanpostuak mantentzeko beharrezkoa zela argudiatu zuen. Baimena lortu eta berehala 29 langile kalera zituena.

Martxoaren 16an Altsasun egin

zen manifestazio handitik bi egunera, Portlandek bere proiektua interes orokorreko izendatzeko eskaria egin zuen, horrela hondakin kudeaketa behin betikoz udalaren kontrolpetik urruntzeko. Eta oraingoan, berriz ere, 122 lanpostu zuzen eta harrobietako eta garraio sektoreko beste hainbat enplegu mantendu beharra aipatuz.

Interes orokorreko izendapena lortu eta hilabetera, beste 39 langilaren kaleratzea iragarri du, I+G+B (Ikerketa, Garapena eta

Berrikuntza) sailekoak horien artean. Horrekin argi utzi du hondakin errausketaren alde egiten duela, zementuaren ekoizpenean berrikuntzak eta hobekuntzak egitea erabat baztertuz.

Lanpostu murrizketa honekin batera, enpresak 56500 tona hondakin erretzeko baimena lortu du, erregaiaren %53aren ordezkapena, eta guztia enplegua mantentzearekin, zonalderako duen garrantzia ekonomikoarekin eta ingurumenari egiten dion ekarpenarekin justifikatuz.

Zementuaren sektorean hondakinak errausketa izugarriko gorakada izan du azken urteotan zementu eskaria gutxitzen joan den heinean: % 0,8 2000. urtean, % 4,2 2006an, % 7 2008an, % 16 2010ean, % 21 2011n, % 24 2012an eta horrela darrai goraka. Enplegua, aldiz, 2007ko 7200 lanpostuetatik ia erdiraino murriztu du. Hori izan da zementu ekoizleen planak ekarri duena, New Valizeneko planak, Portland-en kasuan, lantegia errauskailu bihurtu bere negozioa dibertsifikatzeko.

# Guaixe

**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net  
**GUAIXE:** Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net  
**PUBLIZITATEA:** Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

**Erredakzio burua:** Alfredo Alvaro Igoa  
**Erredakzioa:** Maider Betelu Ganboa  
**Maketazioa:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**Laguntzaileak:** Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso  
**Zuzentzailea:** Patxi Flores

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200 ale

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## SAKANA

## Sakantzen, aktibatzeke III. lan jardunaldi irekiak

**Bihar, larunbata, 10:00etan Olatzagutiko kultur etxean turismoa, marken sormena, internet sareak, langabetuendako orientazioa gaiak landuko dira**

Sakanan bizi dugun krisi egoerari aurre egiteko, jendartea aktibatuhatu nahi du Sakantzen Sareak, bere kideek sinisten baitute jendartearen ekarpena handia izan daitekeela. Horregatik, antolatu dute lan jardunaldia, haren bitartez jarduera ekonomiko berriak martxan jartzeko ideiak jaso nahi dituztelako. Aurretik Altsasun (2012-06-02) eta Etxarri Aranatz (2013-01-19) egindako Lan Jardunaldien segida da biharkoa.

Sarekideek parte hartzeke dei bikoitza egin dute. Alde batetik, ibarreko egoeraz arduratuta egonirik irtenbideak eraikitzeke laguntza eman nahi duen guztiari. Eta, bestetik, III. Lan Jardunaldian jorratuko direngaitan (turismoa, marken sormena, internet sareak, langabetuentzat orientazioa) interesatuta dagoen guztiari.

Sakantzen Sareak jardunaldiaren antolaketan Landa Garapene-



Sakandarrak adi Etxarriin egin zen topaketan.

rako Europako Nekazari Funtsa, Cederna-Garalur, Nafarroako Gobernu eta Sakanako Garapen Agentziaren laguntza izan du.

## Sakantzen-ez

Sakantzen Sare Soziala joan den urteko gargarzaroaren 2an hasi zen martxan, Altsasuko Burunda pilotalekuan antolatutako lehen

lan jardunaldian. Aktibitate haren helburua, sustapen edo lan taldeak sortuz eta dinamika komunitario batzuen bitartez, sakandarren arteko elkarlana eta gure eskualdearen garapena sustatzea zen.

11 Sustapen-Talde sortu ziren: turismoa, nekazaritza eta elikagaien industria, artea, kirolak, formazioa, multimedia eta komunika-

## Egitaraua

Sarrera gisa Sakantzen Sarea zer den eta bere urtebeteko ibilbidean egindakoa azalduko da bihar. Horrekin batera, Sakantzen Sarearen laguntzaz eta itzalean sortu diren enpresa, kooperatiba eta egitasmoen aurkezpenak eginen dituzte protagonistek. 10:30etik aurrera lau tailer izanen dira.

## Wikilur

Wikilur Landaturismo Kooperatiba. Landaetxe, hotel, hostal, jatetxe eta aktibitate enpresek osaturiko zerbitzu kooperatiba da. Bere helburu nagusia, bazkideen zerbitzu horniketa eta Landa Turismoaren garapena da. Kultur murgilketa jatorrian bermatzen duen esperientzia sarea sustatu eta eskuragarri egitea du helburu.

## Axalko

Txirbil Koop. Elkarte, Axalko markako produktuen diseinu eta ekoizpenaz arduratzen dira. Enpresaren nortasun berritzailea garatzeko bide berri bat ireki nahian.

## Ekinn MTA

Langabetuen artean ekintzaitza sustatzeko programa berritzailea da Ekinn. Mondragon Team Academy garatutako metodologian oinarriturik, Azaro Fundazioak Ekinn! programa jarri zuen abian Lea Artibai eskualdean.

## Guifi.net

Autogestionatutako telekomunikazio sare libre eta irekia da Guifi.net. Internet merkeago eskaintzetik haratago, sarearen kontrola erabiltzailearen esku gelditzen da. Katalunian hedapen zabala izaten ari da

zioa, energia berriztagarriak, birziklapena, elkartasun dinamikak, aholkularitza juridiko eta ekonomiko eta azkenik, Sakanako Ezagu-

tzaren Gizarte-Funtsa. Lan talde horien helburua, enplegu sortuko duten proiektu sozial berriak definitu, aztertu eta martxan jartzea da.

## &gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Herri galdeketa alde eta gobernuaren eragozpenen kontra

**Gaur, ostirala, 20:30ean, etxarriarrak plazan izanen den prentsaurrekoan agertzeratu deitu dituzte**

Etxarri 2012+1 ekimenak erabakitze eskubidearen inguruan ariketa praktikoa egitea proposatu zion Etxarri Aranatzko Udalarari eta hark onartu egin zuen. Udalaren gehiengo osoak erabaki zuen etxarriarrei honakoa galdetzea: Etxarri Aranatz Euskal Herriko uda-

lerri modura Europako estatu independente berri baten barnean sartzearekin ados al zaude? Nafarroako Gobernuak herri-galdeketa eragotzi eta Etxarri Aranatzko Udalaren erabakia bertan behera utzi nahi duela salatzeke gaur prentsaurreko jendetsua deitu da. Etxarriarrak bertan parte hartzea deitu dituzte udaletik eta ekimenetik.




Etxarriarrak sinatzen. ERKUDEN RUIZ

## Kronologia

**2013-05-10** Osoko Bilkuran, Etxarriko Udalak erabaki zuen autodeterminazioari buruzko herri-galdeketa bat egiteke prozedura indarrean jartzea, 360 herritarrek hala eskatuta. Bilduren eta NaBairen botoekin, gehiengo oso hartu zen erabakia.

**2013-05-15** Eskatera hori Nafarroako Lehendakari zuzen erregistratu zuten Bilduko eta NaBaiko udal-ordezkariek, Etxarri 2012+1 ekimeneko kideekin batera.  
**2013-05-31** Nafarroako Gobernuak Etxarriko Udalarari eskatu zion hartutako erabakia bertan behera uzteke (165/2013 Foru Agindua).

## Bazkide zozketa



## GARAGARRILEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA  
2- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA

3- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA  
4- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA



## Non erabili

## Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

## SAKANA OPTIKA

## ALTSASU

%15eko deskontua betaurrekoen armazoiaren eta kristaletan, %10eko gainontzekeoetan.

## ARRUAZUKO OSTATUA

## ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

## NEREA ILEAPAINDEGIA

## LAKUNTZA

30 €tik gora, maskarilarekin larruzaleko masajea. 50 €tik

gora, anpoila hidratatzaile bat.

## LOGURE

## ALTSASU

Espazioaren aldaketa: % 50eko deskontua.

## MARTXUETA

## IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

## NUEVA IMAGEN

## ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan, diruz ordain-

duz gero.

## MARIA LUISA

## ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10 €ko deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

## MENDILORE

## BAKAIKU

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, % 5ko deskontua lorontzietan.

&gt;&gt; Arakil

# Goi tentsioko linearen kontra

Asteburuan 400 kV-eko argindar linearen kontrako iritzia eman zuten Arakilgo sei herritan. Auto-pista Elektrikorik Ez! plataformak antolatutako herri galdeketetan auzokideen erdiak baino gehiagok parte hartu zuten, guztira 167 eta dena egitasmoaren kontra azaldu ziren: Errotz (31), Urritzola (18), Zuhatzu (16), Satrustegi (33), Hiriberrri (24) eta Ihabar (45).

Deikaztelu eta Itsaso artean aurreikusitako goi tentsioko linea hartuko litzuketean 39 herrietan egin zen galdeketa. 5.156 zentsatuetatik 3.248k (%63) parte hartu zuten galdeketa eta 3.228k



Hiriberrin ere ezezkua izan zen nagusi. ERKUDEN RUIZ BARROSO

## Dokumentala

**Enpresa elektrikoen negozioa. Garagarriaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako plazan. Autopista Elektrikorik Ez!**

(%99,32) egitasmoaren kontra azaldu ziren. Aldeko 5 boto (%0,1) izan ziren, 6 txuri (%0,12) eta baliogabeak 9 (%0,17).

Galdeketa antolatu zuen plataformatik adierazi dutenez, "herrietarren erantzun argi eta sendoak

administrazio eskudunen teiltuan uzten du pilota, eta orain arte isiltasun-konplizea mantendu duten administrazioendako oharra da". Horregatik Gasteiz eta Iruñeko gobernuei egingidiete herrietarrene alde agertzeko. Berritara ere nabar-

mentu zuten goi tentsioko lineak ez zuela ez "justifikaziorik ezta gizarte-interesik". Hurrengo egunetan 10.000 herritarrek sinatutako alegazioak bilduko dituzte, argindar linea egitasmoa jendaurrean baitago dagoeneko.

## Goi tentsioko lineari buruzko informazio saioa antolatu du Nafarroako Gobernuak

**Heldu den asteazkenean izanen da, 18:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean**

Deikaztelu eta Itxaso artean egin nahi den 400 kV-eko argindar linea proiektua eta ezaugarriak azaltzeko, Nafarroako Gobernuak informazio saioa antolatu. Foru administrazioko industria, ingurumen, osasun eta lurralde antolatetako teknikariek batera Iberdrola eta Red Elctrica Española enpresetako ordezkariak izanen dira.

Aipatu bi herrien artean zirkuitu bikoitzeko 400 kV-eko argindar linea egiteko egitasmoa jendaurrean dago. Nafarroako Gobernuak dioenez, egungo sareak haize errotek sortzen duten eta etorkizuneko haziko den argindar ekoizpena garraiatzeko duten gaitasun falta konponduko luke.

&gt;&gt;



Ihabarko frontoia berritu da.

## Kontratatuak hasi dira lanean

Arakilgo Udalaren lan anitzetako lan taldeak 5 kide berri ditu, maiatzaren 15etik lastailaren 15era. Kontratazioak egin aurretik Arakilgo Udalak ibarreko kontzejuei euren herrietan egin beharreko lanak zerrendatzeko eta lehentasunak markatzeko eskatu zien. Lan horien zerrenda eskuartearen zerbitzu anitzetako lantaldearen zeregina zehaztu du udalak, jakinda agian bost hilabetetan aipatutako lan guztiak ezin izanen direla egin. Bost langile horiekin batera lanean hasi zen ere gizarte dinamizatzailea.

Bestalde, Arakilgo Udalak Babestutako Gizarte Enpleguaren bidez bi pertsona kontratatu ditu. Biek ere sei hilabetez garbiketa lanak egingen dituzte.

## Kontzejuek egitea eskatutako lanak

### Aizkorbe

Argiteria hobetzea bihurgunetan, bentatik. Izurdiagarantz dauden usategietarako bidea konpontzea.

Mendirako bidean dauden bi luiziak konpondu.

Tazon granjarako bideko zorua konpondu eta bazterrak garbitu.

Mendiko igoeran atea jarri.

Festetako karpa kentzean burdinak margotu.

Aizkorbe-Irurtzun bidea, Plazalari, konpondu.

### Errotz

Auzo-konposterako tokia egokitu.

Zubian trabeska gelditutako enborrak kendu eta ibai bazterra zubitik presaraino garbitu.

Herriaren goiko aldeko zoruko lau zulo konpondu.

Tejarko labaderoan putzua eta aska garbitu.

Argiteria publikoko luminariak garbitu eta pintatu.

Kontzeju etxeko bi ate eta portxeko paretak margotu.

Kontzeju-etxeko lehietako kristalak eta kontrabentanak garbitu, baita Oskia taberna ondoko etxea ere.

### Urritzola

Etxarrenerako bidea konpondu.

Kontzeju-etxeko teiltatuko filtrazioak konpondu.

### Izurdiaga

Urritzolarako eta barazterako bidea eta zubia konpondu.

Hilerrirako bideko bazterrak garbitu.

Elkartea, taberna eta kontzeju-etxea margotzea.

Iturri zaharra konpondu eta rebokatu.

Iturri zahar ondoko zuhaitza kimatu.

Auzokide baten gurpilak kendu.

Belardiak moztu.

Pontarronen ur ekarria eta errejilla.

### Etxeberrri

Biltegitiko itajurak kendu. Teiltua barnizatu eta ertzak sendotu.

Ur biltegitira igotzeko bidea konpondu, ur ekarria, errejistroa eta rejilla ere.

Kontzeju etxeko 1. pisua margotu.

Estoldak garbitu.

Auzo anaiak kaleko porlana batu.

Lau bidetako bazterrak garbitu, ezpondak egin eta zorua hobetu.

Hilerriri garbitu eta margotu.

Eskailetako forja margotu.

Frontoian, atzeko paretak konpondu eta margotu.

### Etzarren

Zehrabide goratuak marraz egin eta pintura berezia eman.

Frontoi pareko pinu setoa moztea.

Arketen konponketa.

Farolak zimentatu eta Saniturrri auzoko harresia konpondu.

Aska zaharrak egokitu.

Bankuak lixatu eta margotu.

Markesina egokitu, lixatu eta barnizatu.

Hilerririaren barneko aldeak margotu.

Kontzeju-etxeko eta zubiko eskuerak pintatu.

Kontzeju etxeko balkoietan azulejoak jartzea.

Etxe batean dagoen filtrazioa konpondu.

Etzarren (palarekin egin beharekoak)

Edukiontzien etxola jartzeko lurzorua egokitu.

Hilerrirako eta ibairako bideen bazterrak garbitu.

Haur parkea jartzeko lursaila egokitu.

### Zuhatzu

Zehrabide goratu jarri eta seinaleztatu, herri sarreren abiadura moteltzeko.

Markesinan, huntza kendu paretak ez hondatzeko

Markesinan eskailetarako lastu bustiak daudenean ez irristatzeko.

Markesinako kristalak eta inguruko sasiak garbitu.

Jolas parkeko tobogana lixatu eta margotu.

Jolas parkeko etxola, bankuak, paperontziak eta abar pintatu.

Jolas parkeko zuhaitzen lurra mugitu eta ongarritu.

Larrainetako zuhaitzak eta loreak ongarritu.

Trenbide azpiko pasan urarendako bide egokiak egin, ur azpian ez gelditzeko.

Trenbide azpiko pasako sarrera-irteerako sasiak kendu.

Labadero inguruan merenderoa jarri, zuhaitzak landatu eta labadero bera eta bere ingurua garbitu.

Herri sarrerako zubia margotu.

Herri sarrerako bazterrak garbitu ateratzekoan bisibilitate hobea izateko.

Labaderorako bideko burdinezko zubia konpondu.

Trilladorarako bideko bazterrak garbitu eta bidea konpondu.

Maistren etxeko fatxadako huntza kendu.

Maistren etxeko jardina egokitu.

Frontoiko paretak konpondu eta arketak

garbitu.

Kontzejuko eraikineko sarrerako atea garbitu eta barnizatu.

### Satrustegi

Herriko iparraldeko sarrerako zuloak konpondu, ezpondak garbitu eta bazterrak garbitu.

Hiriberrirako bidea konpondu.

Markesina konpondu.

Intxordia gune berde gisa egokitu (300 m<sup>2</sup>).

Frontoiko argiztapena.

Kaltzadako urak jasotzeko rejilla egin.

Kontzejuaren pisua eta elkartearnean artean isolatzaile akustikoa eta zorua jarri.

Kontzejuaren pisuak sukalde ekonomikoa jarri.

Iparraldeko sarrerako erreka garbitu, alibiaderotik fosa septikora.

Hilerriko teiltua konpondu.

Frontoiko errepedeko bazterrak garbitu.

Hilerriri ingurua eta bide bazterrak garbitu.

Erreka eta kaltzadako kanala garbitu.

Argiteri publikoko 20 farolak margotzea.

Hilerriri barrua margotzea.

Argindar transformadorea margotzea.

Labaderoan garbitzea.

Hilerrirako sarrerako atea egitea.

Beramarako pista konpondu.

Arakil ibaia dragatzea.

### Hiriberrri

Kapana bideko zubiko petrila konpondu.

Kontzeju-etxeko bajera zaharberitu: premarkoak jarri, paretak pikatu eta raseatu eta atzea zabalitzeko bi biga jarri.

Arakil ibaia gaineko zubiko petrila konpondu.

Azokia garbitu eta maila hidrogafikoa jaitxi Berastegiko dermioan husteko.

**BELDARRIN**  
**JUBILATUEN ELKARTEA**

ongi pasa San Juanetan!

Gosariak, Bazkariak eta Afariak  
Tel.: 948 462 000  
ARBIZU

**Fontaneria-Iturgintza**

**JAKA**

Ongi pasa festetan!

948 460 167 · Arbizu



## Uretara

**T**xipli txapla uretara goaz... Udaberri euritsuaren ondoren udako giroan bete betean sartuko garen honetan Sakanako hainbat herritan aukera paregabea izango dugu bainua hartzeko eta baita zerbait edan eta jateko ere. Honen adibide gaurkoan eskaintzen dizkizuegunak, Urdiaingo txokorik ederrenetarikoko

batean kokaturik dauzkagun Aitziberko igerilekuak, Altsasuko harizti ederrenetarikoko batean dauden Dantzalekuko igerilekuak edota aterpean dauzkagun Zelandiko igerileku eta kirol instalazio ezin hobekak.

**Gozatu eta uretara!!**

## Urdiaingo **Aitziber**

**Irekitze data:** asteburu honetan.  
**Ordutegia:** 10:00etatik 20:00etara.



Igerilekuko prezioak		10 pertsona edo gehiagoko taldeendako prezioak
<b>Astean zehar</b>		
Haurrak	3,00 €	27 €
Helduak	5,00 €	45 €
<b>Asteburu eta jai egunak</b>		
Haurrak	4,00 €	36 €
Helduak	5,50 €	49,50 €



### Dantzaleku taberna

Plater konbinatuak  
Kazolatxoak  
Menuak enkarguz  
Urtebetetze meriendak

666 797 736  
dantzalekutaberna@gmail.com

## Dantzaleku



**Irekitze data:** ekainak 15.  
**Ordutegia:** goizeko 11:00 20:00etara.

Igerilekuko tarifak		
Bonoak	2012	Eguneko denboraldia sarrerak
3 urte artekoak	DOAN	DOAN
3-15 urte bitartekoak	30 €	3,00 €
16-65 urte bitartekoak	45 €	4,50 €
65 urtetik gorakoak	35 €	3,50 €

**10 pertsona baino gehiagoko taldeetan, % 25eko deskontua izango dute eguneko sarreraren.**

## Zelandi kiroldegia

Bono berrien matrikula		
Helduak (16tik aurrera)	75 €	
Haurrak	55 €	
Bonoen hilabeteko prezioa		
Norbanakoa	Igerilekua	Mixtoa
Infantilak (3-15 urte)	13,60 €	
Helduak (16-64 urte)	18,10 €	23,75 €
Familiakoa (3 kide edo gehiago)		
Infantilak eta helduak	13,60 €	17,80 €
Hobariduna		
Infantilak (3-15 urte)	13,60 €	
Helduak (16-64 urte)	14,75 €	19,05 €
Hilabeteko bonoak		
Infantilak	26,90 €	
Bonifikatuak	30,40 €	40 €
Helduak	35,80 €	47,05 €

**Ordutegiak:**

**Uztaila eta abuztua:**

Asteleheneretik ostiralera 9:00etatik 21:00etara.

Larunbatean 9:00etatik 20:00etara  
Igandetan 9:00etatik 14:00etara.

**Abuztua (1etik 15era ITXITA)**



&gt;&gt; Bakaiku / Iturmendi

# Independentisten bilgune

Bakaikuko eta Iturmendiko independentistak Iturmendin elkartu ziren Independentzia Egunean harremanak bultzatzeko eta esperientziak elkartrukatzeko. Apurtu ditzagun kateak lelopean burujabetza politiko eta ekonomiko aldarrikatu zuten. Goizean umendako jolasak, zaldi ibilbideak eta murala margotu zuten. Bazkaldu ondoren, eta Fermin Balentziaren emanaldia entzun ostean, Burun-

dako bi herri arerioak herri olinpiadetan ohorea jokatu zuten. Baina Independentziaren eguneko xedea bestelakoa zen, eta kontzentrazioa eta ekitaldi politikoa egin zuten. Eguna Edoarren kantaldia eta dantzaldiarekin amaitu zuten.

Independentziaren aldeko ekitaldiak izandako Nekane Jurado ekonomilariaren hitzaldiarekin hasi ziren, ostiralean Bakaikun. Gaur egungo krisi ekonomikoak



Bakaiku eta Iturmendi herri olinpiadetan neurtu ziren. ERKUDEN RUIZ BARROSO

nork sortu duen, zertarako eta zein helburuarekin azaldu zuten

Juradok. Eraldaketa soziala aldarrikatu zuen hizlariak. Baita ego-

era honi buelta emateko zenbait aldagai ere plazaratu zituen.

SAKANA

# Mugitu!: AHT-rako dirua komuneko zulotik behera joaten da

**Egitasmoak gelditzeko eskatuz eta diru "xahuketa" salatzeko Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzan eta Altsasun komun-zulo bana jarri zuten larunbatean**

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontra den Mugitu! Mugimenduak (M!M) ekimen horrekin salatu nahi izan zuen Hego Euskal Herrian boterean den klase politikoak, gobernuak, azpiegitura erraldoien politikarekin aurrejarraitzen dutela krisiak gizar-tearen gehiengoaren bizi baldin-

tzak prekarizatzen ari dituenen. AHT-ra bideratutako 10.000 milioi euroak, "xahututako dirua, komun zulotik botatzea esan nahi du, lehentasunezkoak diren arlo sozialeko, ekonomiko edo kultureko egitasmoak bultzatu ordez". Halakorik egiten jarraitzea ezin dela utzi azpimarratu zuten mugimendutik.

M!M-ko kideek salatu zuten Nafarroako Gobernuak 70 km-ko AHT linea egiten tematuta egotea. "Nafarroako ogasunak

300 milioi euro aurreratu ditu jada, eta 45-60 milioi arteko maileru baten interesak ere bere gain hartu ditu, eskandalo ikaragarria beraz". Mugimendutik egitasmoaren bestelako ondorioak ere aipatu zituzten: "ingurumenean eragiten duen txiki-zioa, energia kontsumo andana, lurralde antolaketan sortzen duen desoreka eta duen gastu ekonomikoak diru publikoaren dako egitasmo jasanezina bihurtzen dute".



Larunbatean komunak agertu ziren ibarreko 5 herrietako toki publikotan.

&gt;&gt; Altsasu



Errepresio indarrak alde egiteko eskatu zuten larunbatean. UTZITAKOIA

# Alde egin dezatela eskatuz

Larunbatean aurreneko Alde Hemendik eguna ospatu zen Euskal Herriko hainbat tokitan, Altsasun barne. Euskal Herrian dauden "gorputz errepresiboak betirako joatea" exijitu zen, "egun Euskal Herriak bizi duen egoeran gorputz polizialen bortizkeria eta errepresioa onartezina delako eta beraien beharrik ez dugulako".

Altsasun egun osoko egitaraua prestatu zuten. Goizean gurutzera mendi martxa egin zen eta bidean, Basaluzeko dorre ondoko larrebatean, alde hemendik irudikatzen duen gezia handi bat egin zuten plastikoz. Mendian goian ospa zioen lelo handia idatzi zuten eta ekitaldia izan zen. Guardia Zibilak gertutik zaindu zuen guztia eta

mendizale batzuk ere identifikatu zituen.

Herri bazkariaren ondoren iragarritako kontzentrazioa ez zen egin Guardia Zibilak isunekin mehatxatu zuelako. Herriko sarretan ere kontrolak zeuden. Horren ordez ospa leloarekin herri argazkia egin zuten plazan. Triki-poteo eta kontzertuekin itxi zen eguna.

**Munduko Musikak OLATZAGUTIAN**

**KITUKA BURUNDI**  
**Irurtzungo DJEMBE taldea**  
**YOUSSEF KEJJI**  
**MAIDER ANSA**  
**+ sorpresak**

**ekainak 28 junio**  
**20:00**  
**SUTEGI PARKEAN**

Euria eginez gero Kultur Etxean / Si llueve será en la Sala de Cultura

Mark, Nafarroako Gobernua, Gobierno de Navarra



## SAKANA

# Udalek Sakanako garapen sozioekonomikoa bultzatzeko eskatu du Parlamentuak

**PPk aurkeztutako mozioan ez zen onartu hondakin biltza berrirako dirua enpleguaren sustapenerako bideratzea**

Nafarroako Parlamentuan ostira-lean onartutako ebazpen batean Sakanako udalak eta Mank animatu zituzten "eskualdeko instituzio, politika, ekonomia, lan eta gizarte garapenean agente aktiboak eta positiboak izatera". UPN, PSN, Bildu, Aralar-NaBaik eta PPren aldeko bozkekin eta I-Eren eta Geroa Baikoen abstentzioarekin onartu zen eskaera.

Alderdi popularrak aurkeztutako 5 puntuko mozio bateko lehenena zen hori. Adostasun berarekin onartu zen bigarren puntuan aipatu ibarreko erakundeei Parlamentuak eskatu zien "haien aurrekontuen eta ekimenen barruan enpleguaren sorrera, enpresariei babesa eta ekintzaileei bultzada ematea lehenestea".

Babes bera jaso zuen Nafarroako Gobernuari, Sakanako Uda-

lei eta Mank-i "sakandarren beharretara ibarreko erakunde publikoek politikak egokitzeko eta ondorioz arlo guztietan kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeko elkarrizketa arina eta etengabea" egindako eskaerak.

Beste puntu bat erregionalisten, sozialisten eta popularraren babesarekin atera zen aurrera. Hartan ibarreko erakundeei eskatu zitzaizen "luzapenik gabe babestu eta tramitatu ditzatela, beti ere indarrean dagoen legedia betez, eskualdeko industria eta ekonomia ehuna modernizatu, berritu eta zabaldu ditzaketen proiektuak". Puntu horren kontra bozkatu zuten Bildu, Aralar-NaBaik eta I-Ek eskatu zutelako "gizarte eta ingurumen errentagarritasun eta jasagarritasun" aipamena gehitzea eta ez zelako onartu. Geroa Baikok abstenitu egin ziren.

UPNren eta PPren babesarekin



Nafarroako Parlamentuak batzorde batean Sakanako hizpide izan zen. ARTXIBOA

nahikoa izan azken puntua onartzeko. Mank-i eskatzen zitzaion hondakin biltza berrirako dirua aurrekontua jarduerako ekonomikoa eta enplegua sustatzera bideratzea. Bestalde PPk ez zuen onartu Geroa Baiko haien mozioari aurkeztutako zuzenketa.

Haren bidez, "Sakanako gizarte eta politika eragile guztiei, baita Nafarroako Gobernuari ere, berriki martxan jarri den eta ibarrerako plan estrategikoa zehaztea helburu duen hausnarketa estrategikoko Garapen Behatokia parte hartzeko" gonbitea egiten zitzaizen.

## Lakuntza



Eguneko protagonistetako batzuk haurrak izan ziren



Iraila-lastailerako jarriko dituzte parkeko altzariak eta han jolastuko dute.

## Parke eguna, arrakastatsua

**Haurrek nahi duten parkea bozkatzeko aukera izan zuten**

Lakuntzako Parkea Martxan taldea iaz hasi zen lanean, parke berria egin ahal izateko dirua biltzeko. Ordutik hainbat ekitaldi antolatu dituzte, larunbatean ospatutako Parkearen Eguna barne. Goizetik hasita, eguraldia lagun, makina bat ekitaldi izan ziren Lakuntzan: erraldoi eta

buruhandiak, Elai Alai dantza taldearen emanaldia, haurrendako jolasak... eta, arratsaldean, kantuz betetako musika ekitaldia. Izan ere, herriko haurtxoetatik hasita, helduenetara arte, hainbat kantu eskaini zituzten oholtza gainera igo ziren lakuntzarrek, beteta zegoen plazan. Aldi berean, dirua ateratzeko taberna txoa eta 2. eskuko postua jarri

zituzten.

### Bozketa

Parkea Martxan taldeko Jone Aretak egunaren balorazio oso positiboa egin zuen. "Taldearen helburua zen parkea lortzeko diru biltza egitea eta herriko talde guztiak, oso anitzak direnak, helburu beragatik elkartzea. Eta lortu dugu. Jai giroa eman nahi izan

diogu egunari eta oso ongi aterada". Larunbateko kontuan hartu gabe, taldeak 13.000 euro inguru bilduak ditu eta aurrekontu horretara mugatuta parke egituratua egiteko diru laguntzak eskatu zituzten. "Parkeko altzarietarako lau proposamen jaso ditugu eta 3-12 urte bitarteko haurrek gehien gustatzen zaiena bozkatu dute. Horretaz gain, gune ez egituratua ere beraiek diseinatu dute, beraiek esango digute zer nahi duten" gaineratu zuen Aretak. Atzo gauean egitekoa zen boto zenbaketa.

## Olatzagutia

## Nagore dokumentala eta hizketaldia

Gaur, 19:30ean kultur etxean

Helena Tabernak Nagore Laffageren erailketaren inguruan ondutako lana ikusteko aukera izanen da gaur Olaztin. Hilketaren 5. urteurrenean, emanaldiak aukera emanen die bildutakoei genero indarkeriaren inguruko hainbat alderdi eta azken berriaren inguruan aritzeko. Gero solasaldia izanen da Alicia Panorekin (berdintasun teknikaria), Nagore Huegunekin (soziologoa) eta Asun Casolorekin (Laffageren ama).

## SAKANA

## Enkantea Aralarren

Aralarko Elkarteak enkante bidez pago lotea salduko du. Aralarren duden 2.739 pagoek osatzen dute lotea, 380 m<sup>3</sup> zur eta 3.133 m<sup>3</sup> egur egiten dutenak. Lizitazio prezioa 51.840 eurokoa da. Eskaintzak garilaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira Lakuntzako udaletxean.

## Parapentzealen biltzarra

Eguraldiagatik bi aste atzeratu ondoren, larunbatean ospatu zen Sakanako parapente Baiza taldearen eguna. Sakandarrekin batera Hego Euskal Herriko eta Errioxatik etorritako 80 parapentzeale bildu ziren. Ipar haizea lagun egun guztian Santa Marinatik aieratzen egon ziren parapenteak.

## Altsasu

## Goierri eskolako logo altsasuarra

Ikastetxearen 50. urteurreneko ospakizunetarako Goierri Eskolako logo lehiaketa antolatu zuen. Epaimahaiak lau finalista aukeratu zituen eta ondoren Facebook-en bidez baten edo bestearen alde egiteko aukera izan zen. Nerea Martinez altsasuarraren logoa izan zen irabazlea. Eskolako zuzendari Iñaki Zabaloren eskutik jaso zuen saria, iPad Minia.

# PIVE PLAN BIKAINA

**PRECIOS SÚPER ESTRELLA**

carstore.citroen.es - en

**SERIE BEREZIA**  
CITROËN C4 HDi TONIC **13.300€\***

CITROËN C-ELYSÉE VTI EXCLUSIVE **10.500€\***

KONSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO<sub>2</sub> IGORPENA (G/KM):  
CITROËN C4: 4,2-6,4 / 109-148  
CITROËN C-ELYSÉE: 4,1-6,5 / 108-151

\*Citröen C4 HDi 90 Tonic PSP aholkatua, (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne), bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen kobrea emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala eta 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, Banque PSA Financearen bidez Citröen PREMIUM finantzatu luke eta Essentialdrive komertzial bermearen luzapena kontratatuko lukeena gutxienez 2+1 edo 40.000 km (lehenengo gertatuko dena) hilabeteko abono bidez; finantzaketaren gutxieneko iraunkortasunaren betebeharrarekin, 36 hilabeteko zerbitzuarekin, Citröen C-Ellysée VTI 72 Exclusive (zergak, garraioa, eskaintza eta PIVE2 plana barne) bezero partikularrentzat zeintzuk PIVE planera bilduko diren eta eroslearen Citroën bat emango duten; 6.000 ko gutxieneko kapitala finantzatu dutenak, 36 hilabeteko iraunkortasuna izango duena, AXA S.A. aseguru etxean kobretarako aseguruarekin reaseguratu kontratatuko dituztenak Banque PSA Financearen bidez, erregistro zenbakia web orrian ikusgai www.orias.fr. Hilabete akaberako eskaintza partehartzailen salmenta tokietan. Modeloa ikusgarri: Citröen C4 Exclusive eta Citröen C-Ellysée VTI 72 Exclusive. Eskaintza ez metagarria. Baldintzak www.citroen.es

**SAN MIGUEL AUTO-TAILERRAK S.A.** Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industrigunea • IRURTZUN • 948 600 657

## » Altsasu

Iortia kultur gunean, 19:00etan, izanen da

Euskal Herriko hainbat herritan bezala, Altsasun ere herriko gertakarien eta historiaren memoria berreskuratzearen aldeko lanke-ta egiten hasi da altsasuar talde bat. Haien iritziz, "herriak beharrezkoa du jakitea zer jasan izan duen etorkizunari aurre egiteko. Altsasuko benetako historia eta gertakariak agerian uzteko ordua dela uste dugu".

AltsasuMemoria taldea sortu dute eta aurreratuko dute izaera dibulgatzailea eta herrikoia duen taldea izanen dela. Taldekideek altsasuarrak bertan parte-hartze-ra animatu dituzte. Eta horrekin batera gaurko aurkezpena gon-

## Gaur aurkeztuko da AltsasuMemoria taldea



Altsasuarrak plazan.

bidatu dituzte. Taldearen aurkezpenarekin batera EuskalMemo-

ria fundazioko Amaia Esnalen hitzaldia ere izanen da.

## » Irañeta

## Velascoren txakurrek sariak biltzen jarraitzen dute

Alberto Velasco Sanchez txakur hazleak animaliekin sariak irabazten segitzen du. Duela hilabete Budapesten antolatutako nazioarteko lehiaketa batean Chelines in extremis izeneko lakeland terrier txakurarekin aurreneko saria eskuratu zuen, eta beste batzuk ere eraman zituen. Igandean Uharteko Iruñetik Irañetara ere lehen sariarekin bueltatu zen. Garaipen horrekin irintarraren txakurra Nafarroako onena izateko lehian sartu da. Maiatzean Tuteran izan zen lehiaketako sarituekin alderatu ondoren erabakiko da txapela, irailaren 8an jabearen buruan bukatuko duena.



Alberto Velasco bere txakurretako batekin. UTZITAKOIA

Bestalde, Uharteko Iruñeko ekitaldian ere Bocalan Fundazioko

kideak izan ziren, haien egitekoaren berri ematen.

## » Etxarri Aranatz



Pasa den urtean Herri Askeak lip dub-a grabatu zuteneko.

## Bideo klip erraldoia prestatzen

Hilaren 29an egingen da eta parte hartzeko gonbitea makina bat talderi luzatu zaie.

Asteartean, hilak 26an, 19:30ean kultur etxean taldeetako ordezkariak biltzeko deia egin da

LipMugi-a prestatzen hasi dira Etxarri Aranatz. Lipdub-en moduan toma bakarrean grabatutako bideoklipa izanen da. Baina, bestetik, Mugi hitza bi arrazoirengatik gehitu diote: herritarrak dantzan jarri nahi dituztelako eta herri mugimenduen isla izan nahi duelako. "Herria aktibatu nahi dugu, esnatu".

Herrian aktibitate kultural zein herrigintzan ari diren talde guztiak bildu nahi lituzkete bideoklipen. Horregatik guzkiekin haiekin harremanetan jarri dira, bakoitzari egiten dutenaren isla emateko txoko bat eman nahi diote, "erakuslehierraldoia". Antolatzaileek "egun alai, partehar-

### Ennecoz iritzia emateko garaia

Garagarriaren 25ean, asteartean, 20:30ean bilera irekia kultur etxean

Etxarri Aranatzko Udalak behetako basoan Enneco, haritzaren memoria interpretazio zentroa eraikitzeko proposamena jaso du Nafarroa Bizirik fundazioetik. Proiektuaren aurkezpena egin ondoren eta etxarriarren balorazioak, iritzia, ideiak eta proposamenak jasotzeko deitu du udalak astearteko bilera. Udalak parte hartze deitu du.

tzaile eta polita" ziurtatu dute, bide batez "jendearen arteko harremanak hobetu eta proiektu komunitanaritzeko aukera" ematen duena.

## SAKANA



Trafikoa Leitzarango Autobian, Biaizpen.

## Bidesariak Gipuzkoako errepideetan

2014ko lastailerako martxan egonen lirateke. Gipuzkoako ordezkariak Nafarroako Gobernuarekin garilaren 1ean bilduko dira

Hesirik gabeko arkupe sistema erabiliko luke Gipuzkoako Foru Aldundiak bere errepide sarean bidesaria jartzeko. Haietako zazpi arku Iparraldeko Autobian (A-1) eta hiru Leitzarango Autobian (A-15) jarriko lituzke. Bidesaria-

ren bidez lortutako dirua errepideen mantenturako, Bidegiren zorra estaltzen laguntzeko eta garraio publikoa sustatzeko politketarako bideratuko dute.

Euskal Herriko beste lurraldeetako herritarrei kalterik sortu nahi ez dietela azaldu dute Gipuzkoako Foru Aldunditik eta bidesaria jartzeko elkarlanean aritu nahi duela azaldu du.

## » Etxarri Aranatz

## Musika eskolan izena emateko epea zabalik

Hilaren 30era arte, 10:00etatik 14:00etara, udaletxeko bulegoetatik pasatzeko aukera dago

Etxarri Aranatzko Udala Musika Eskolan izena emateko epea zabalik dago. Udalak aholkatu du matrikula orain egitea "eskolaren funtzionamendua asko errazten duelako". Izan ere, izena emateko bigarren deialdi bat aurreikusita da agorriaren 26tik irailaren 6ra, baina ordura arte ez itzaroteko aholkatu dute musika eskolako arduradunak. Behin izena eman duenak urte bukaera arte du matrikula baliogabetzeko aukera, abenduaren 31tik aurrera egiten duten ikasturte guztiko kuotak ordaindu beharko dituzte.

### Eskaientza

Hezkuntza musikala, kantua, akordeoia, txistua, tronboia, tronpeta, bonbardinoia, saxofoia, gita-



Ikasleak musika eskolako bidean. ARTXIBOIA

rria, biolina, zeharkako txirula, pianoa eta bateria. Ikasleen arteko harremanak bultzatzen du eskolak, horregatik, hainbat talde instrumentaletan jotzeko aukera ere badago, eskolan eta instrumen-

tuen arabera ganbara taldeetan (bikoteak, hirukoteak...), esaterako. Kantuko ikasleek ere erreperitorio propioa lantzen dute eta kontzertuen bitartez eskaini, eta metalezkoek banda.

## SAKANA

# Nekazaritza ekologikoan trebatzen hasteko aukera

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) ikastaro pare bat antolatu ditu nekazaritza ekologikoa ezagutzen hasi nahi dutenentako. Ikastaro teoriko praktikoa izanen da. Alderdi teorikoa Etxarri Aranazko kultur etxean eta Altsasuko Iortia kultur gunean eman dira eta praktikak bi herrietan dauden herri baratzetan egingen dira.

Ikastaroak 32 ordutako iraupena izanen du eta hiru zatitan banatu da, uda, udazken-negua eta udaberria. Hala, urtaroen jarrai-

pena eta bakoitzari dagozkion lanak ikasteko aukera eman nahi du SGAK. Nekazaritza ekologikoren eta agroekologiaren oinarriak ikastearekin batera, lurra- ren garrantzia eta bere erabile- ra, landaketen planifikazioak, ureztaketa, beharrezko lanabe- sak eta elkarlanaz ikasiko dute parte-hartzaileek.

## Izen ematea

Hilaren 24a baino lehen eman behar da izena Etxarri Aranazko kultur zerbitzuan, Altsasuko Ior-

## Egutegiak

**Etxarri Aranatz:** garagarriak 28; gailak 4; irailak 7, 14, 21 eta 28 eta otsailak 8, 15 eta 22.  
**Altsasu:** garagarriak 25 eta 27; irailak 24 eta 26; lastailak 1, 3 eta otsailak 6, 13 eta 20.  
Ikastaroak 16:00etan hasiko dira.



Herri baratza hartuko duen Etxarriko lurra.

tia kultur guneko sarreran edo [www.sakanagaratzen.com](http://www.sakanagaratzen.com)-eko gal- detegia erantzunez. Izen ematea

doakoa da, baina ikasleek 20 euro- ko ekarpena egin beharko dute ikastaroan erabili beharko diren

materialak (landareak, haziak...) ordaintzeko; sobratuko balitz buel- tatu egingen litzateke.

## >> Etxarri Aranatz

## Hondakinei buruzko galdeketa legegintzaldi honetan egingen da, orain ez

Aurreko astean udalbatzak atzera bota zuen NaBaik hondakin siste- ma bilketaren inguruan aurkeztu- tako mozioa. NaBaik proposatu zuen etxarriarren artean zuzene- ko informazio kanpaina egitea eta haren bidez atez ateko sistema, konpostatzea eta bestefrakzioenda- ko edukiontzi sistema azaltzea. Horrekin batera, herritarren iritzia ezagutzeko NaBaik herri galdeke- ta loteslea egitea proposatu zuen. NaBaiko bik (bestea ez zen joan) eta PPkoak aldeko botoa eman zuten, ez horrela Bildukoek.

Birziklatze tasa handitzeko NaBaik hondakin organikoak hiru modutara jasotzea proposatu zuen: konposta, auzo-konpost guneak eta 5. edukiontzi erabiliz. "Infor- mazio eta laguntza egokia emanaz gero, baliozko aukera izan liteke, eta atez ateko sistemak baino era- gozpen eta deserotasun gutxiago sortuko lieke bizilagunei haien eguneko ohituretan". Horrela, bizilagunek frakzio organiko- ko zaborrak botatzeko ordutegi aska- tasuna izanen lituzketela argu- diatu zuen koalizioak. Beste hon- dakinetarako edukiontziak gune itxietan jartzea proposatu zuen NaBaik. "Gune bakoitzeko edu- kiontziak giltza desberdina izan- go lukete, eta horrek bizilagunei zaborra botatzeko ordutegi aska- tasun handiagoa izanen lukete". Mank-ek halakoak Arakil, Irañe- ta, Arruazu, Ergoiena eta Ziordin jarriko dituela azaldu zuen.

NaBaik gogora ekarri zuen las- tailean aurkeztu zuela hondakin bilketa sistemari buruzko mozioa eta mahai gainean utzi zela Bildu- rekin izanen ziren elkarrizketen bidez bi taldeen arteko sistema adostua lortzen zuten jakin arte.

## Bilduren iritzia

Koalizioak herri galdeketa- ren aldeko bere jarrera berretsi zuen.



Udal bilkura. ARTXIBOA

Baina hura parte hartze prozesu baten kate-begi baten moduan ikusten dutela adierazi zuten. Heziketa prozesu baten eta men- talitate aldaketa baten ondoren herri galdeketa egitearen alde azaldu ziren Bildutik. "Orainjen- deak ez du ziurtasunik edo erre- sistentziak daude". Martxan jarriko den oraingo prozesua hasiera besterik ez dela azaldu zuten koalizioetik, "gero aldatu daiteke". NaBairekin adostu bezala, legegintzaldia despeditu aurretik herri-galdeketa egingen dela ziurtatu zuten. Bestalde nabarmendu zuten Etxarriaren diren 9 herri batzarretan eta batzordean galdeketa baten beha- rrik ez dela sumatu.

Bestalde, NaBairekin ezarriko den sistema mistoaren adostu zutela esan zuten Bildutik. Bai- na NaBaiko udal taldean kide batek batzordean jarraitzen duen bitartean beste bik helburu poli- tikoengatik utzi dutela nabar- mendu zuten. Aldi berean, gogo- ra ekarri dute irailean Sakanako Mankomunitatean hondakin bil- keta martxan jartzea erabaki zenean NaBaiko kideek ez zute- la kontrako botoa eman.

## Nafarroako Mendialdeko garapena da gure apustua

## Eskualde bakoitzetik sortu behar dira Cederna-Garalurren eginkizunak

Isabel Elizalde Arretxea Cederna-Garalurreko zuzendari-gerenteak azaldu digunez, Nafarroako Mendialdeko eskualde bakoitzean garapen dinamika propio bat bultzatzeko lanean ari dira. Eskualde bakoitzean lan-mahaiak edo lantaldeak sortu nahi dituzte. Elizalde, bestalde, Administrazioen eta eragile- en arteko elkarlanaren onurak aldarrikatu ditu.

## Isabel Elizalde Arretxe

### PCederna-Garalurrek zein helburu jarri diz- kio bere buruari?

Helburu nagusia eskual- de bakoitzak bere gara- pen dinamika sortzea da. Benetan garapena behetik gora egitea eta, horretarako, mahaiak edo lantaldeak osatzea.

Cederna-Garalurren eginkizunak eskualde bakoit- zetetik sortu behar dira. Poliki-poliki ari gara. Hainbeste erakunde eta eragileekin elkartu gara. Gure hurrengo pausoa aipatutako mahai horiek benetan eskualdeko motorrak izatea da.

Bestalde, esan behar da bost lan arlo nagusi mar- katu ditugula: ondarea, turismo, merkataritza eta zerbitzuak; lehen sektorea eta basoak; prestakun- tza eta enplegua; teknologi berriak, komunika- zioa eta berdintasuna; garapen estrategiak eta horien inguruan sortu eta antolatutako strate- giak.

### Eskualdeetako diagnosiak egin dituzue, ezta?

Eginak eta edozeinek erabili nahi baldin baditu hor ditu eskura, [www.cederna.es](http://www.cederna.es) orrian zintzilikatuak daude. Eskualdeetan gurekiko izan zitezkeen

eskaerak eta jarrerak ere jaso ditugu. Eta garran- tzietsuena, eskualde bakoitzean ikusten diren ahultasunak eta indarrak ezagutzeko, egin beha- rrak zehazteko eta lehenetsunak markatzeko balio izan dute diagnosiak. Ez dira dokumentu itxiak, irekiak dira eta lan tresna bezala erabiltze- ko egin dira.

### Orain arteko estrategiak aldatuko dira?

Estrategiak aldatzen joan den urtean hasi ginen. Lan arloak zehaztu ditugu, hasi gara batzordeak osatzeko eta martxan jartzeko prozesuekin... Laster, gaur egun Antsoainen dauden langileak eskualdera hurbilduko dira. Bestaldetik, erakun- dean eragile pribatu gehiago egotea eta parte hartze handiago edukitzea nahi dugu.

### Eta ondoren?

Etorkizuna. Nafarroako Mendialdeko etorkizunari lotuta egonen da, bertako erakundeek eta eragi- leek esan beharko dute. Nire ustez Nafarroako Mendialdeak, elkarrekin joaten bagara eta elkar lagunduz, indarra, baliabideak eta bideak bilatze- ko aukera gehiago izanen ditugu. Hau da, nik nire arazoak bakarrik ikusten baditut eta ez besteare- nak, aurrean bide zaila izanen dut irtenbideak bilatzeko. Elkar ezagutzeak eta elkar ulertzeak lagunduko gaitu gure bailaratan bizitzera, lan egi- tera eta gozatzerara.

### Garapen agenteak:

Susana Mendinueta: [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) · Oskia Lazkoz: [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es) · Myriam Imaz: [mimaz@cederna.es](mailto:mimaz@cederna.es)

Cederna-Garalur. Utzubar industrialdea, 8. lursaila, Arbizu. 948 567 010



Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa inverte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtza: Europa landa eremuetan inbertitzen LGP 2007-2013 (LEADERko 4. ardatz) programako funtza. Europar Batasunaren finantziazioarekin (% 55). Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LEADER) bidez

## » Olatzagutia

# CPVk porlandegian 29 kaleratze iragarri ditu

2012ko akaberan beste 28 kaleratu izan ziren

Cementos Portland Valderrivaseko (CPV) zuzendaritza deituta atzo Madrilera joan ziren taldeko sei porlandegietako enpresa batzordeetako ordezkariak. Bezperan CPVk porlanaren saileko 227 langileren kontratua hausteko enplegu erregulazio espedientea (EEE) aurkeztu zuen. 39 kaleratze Nafarroan egingen ditu CPVk haietatik 29 Olatzagutiko porlandegian (122 daude). Taldeak neurri horiek argudiatu ditu zementuaren salmenta asko jaitsi delako. Lantegirik ez du itxi nahi, denek dirua ematen diotelako.

Erabakia gauzatuko balitz, Olatzagutiko ikerketa, garapena eta berrikuntza departamentua itxi egingen litzateke (16 langile) lantegiko 10 langile kaleratuko litzuzke, harrobiko langile bakarria eta pertsonal eta segurtasun arloetako bana ere bai. Bestalde, urteko 550.000 tona ekoizteko gaitasuna duen lerroa itxiko luke (besteak 700.000 tona urteko gaitasuna du). Aurten 340.000 tona inguru ekoiz-



Porlandegian 150 langile zeuden 2012an eta orain 93 gelditu daitezke.

tea aurreikusten da, joan den urtean baino %25 gutxiago.

EEE indarrean jarri eta kaleratzeak egin ondoren neurri gehiago izanen direla iragarri du CPVk. Aurreikusitako neurrien artean daude: lan egutegia egokitzeko aldi baterako kontratuak eteteko enplegu erregulazio espedientea eta soldaten murrizketa. Atzoko bileran langileen ordezkariak eskatu zuten EEE eta ondorengo iragarri diren neurriak, guztia aldi berean negoziatzea.

#### Iritzia

Enpresa batzordean (UGT 4, ELA 3 eta CCOO 2) gehiengo duen

UGTn "kezka handiz" hartu dute CPVren erabakia. Negoziazio mahaian kaleratuen kopurua ahalik eta gehien txikitzen saiatuko dira, "edo, bestela, kaleratuak ahalik eta baldintza onenetan atera daitezela". Negoziazioaren martxaren arabera ez du ezer baztertzen UGTk.

ELAko kideek "gaizki" hartu zuten kaleratzen albisteak. Atzo Madrilenesan zuten talderako EEE han negoziatzen bada ere, enpresa bakoitza ezberdina dela eta lan zentro bakoitzaren bideragarritasun plana egin beharko litzatekeela. Sindikatu bakoitza bere afiliatuekin batzarrak egingen dituzte.

## » Altsasu



Langileak Berriozarren, Iruñerako bidean. UTZITAKOIA

## Lazaro Echeverriakoak bigarrenaz Parlamentuan

**Gaur, 11:00etan, Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegu batzordean bizi duten inpassen egoeraren berri emanen dute**

Enpresan izandako sei kaleratzen eta lan baldintzen inguruan negoziatzeko prest segitzen dute Lazaro Echeverriako langileek mugagabeko greban 108 egun eman ondoren. Lanuztea hasi aurretik eta, ondoren, idatziz haien proposamenaren berri eman diote enpresari. Baina aldean artean ez da inolako hartu-emanik egon. Gaur Lazaro Echeverria enpresako langileen ordezkariak batek Nafarroako Parlamentuko batzor-

dean haien egoeraren berri emanen dute.

Zortzi egunetan Parlamentuan egonen diren bigarren aldia izanen da. Izan ere, ostiralean Alberto Catalan erakundeko presidentek hartu zituen eta hari haien egoeraren berri eman zioten. Egin zuten oinezko martxaren akaberan izan zen harrera hori. Aurretik, bai bidean, baita Parlamentu aurreko aldean ere, Lazaro Echeverriako langileak makina bat pertsonaren elkartasun adierazpenak jaso zituzten eta horregatik eskertuak azaldu dira.

**SAKAN**  
SAREA  
**TZEN**



## 3. LAN JARDUNALDI IREKIA

EKAINAK 22  
Olatziko Kultur Etxean

10:00: Jardunaldiaren hasiera.

*Zer da Sakantzen Sarea?  
Zein dira gure helburuak?  
Zer egin dugu orain arte?*

10:20: Sakantzen Saretik sortutako enpresek azalpen txiki bat emanen dute.

10:30: Hizlariak

- Wikilur Landaturismo Kooperatiba.
- AXALKO: Txirbil Koop.
- EKINN MTA
- GUIFINET

13:50 Jardunaliaren bukaera.



**WIKILUR:**  
Wikilur Landaturismo Kooperatiba. Landareak, hotel, hostal, jatetxe eta aktibitate enpresek osaturiko zerbitzu kooperatiba da. Kooperatibaren helburu nagusia baskoen zerbitzu hornitzea eta Landa Turismoaren garapena da. Kultur murgiltzeta jatorrian bermatzen duen esperientzia sarea sustatu eta eskuragarri egitea du helburu.



**AXALKO:** Txirbil Koop.  
Merkaio produktuen diseinu eta ekoizpenaz arduratzen dira. Enpresaren nortasun berritzea garatzeko bide berri bat ireki nahian.



**EKINN MTA:**  
Langabeziaren artean ekintzazletza sustatzeko programa berritzea da EKINN. Mondragon Team Academy garatutako metodologiaren oinarritutik Azaro Fundazioak EKINN programa jarri zuen abian Lea Artibai eskualdean.



**GUIFINET:**  
Autogestiatutako telekomunikazio sare libre eta irekia da. Internet merkeago eskaintzeki haratago, sarearen kontrola erabiltzailearen esku gelditzen da.



## SAKANA



Kedadan lan taldeka ere aritu ziren parte-hartzaileak. UTZITAKOIA

## Ekimena, porrot egiteko beldurraren gainetik

80 ekintzaile baino gehiagok parte hartu dute Cederna Garalurren Kedadan

Cederna Garalurren ekintzaileen dako antolatutako 2. Kedada aurreko asteazkenean burutu zen Altsasun. Bertan, 80 ekintzaile baino gehiagok parte hartu zuten. Modu aktiboan gainera. Izan ere, horixe zen jardunaldiaren mezuetak: bizi dugun egoera zail honen aurrean norberaren parte hartzea aktiboa izan behar dela. Hala, jardunaldian ere, ekintzaileen parte hartzea nabarmendu zen: hainbatek beren egitasmoak azaldu zituzten eta burututako tailerretan eta bukarako lankidetzatailerrean zenbait negozio-idea sortu ziren.

Topaketaren beste helburuetakobatzen mezu baikorra zabaltzea: bizi dugun egoera zaila izan arren

enpresak sortzea posible dela azaltzea. "Lan faltak, tristezia... eta halako sentimenduak sortarazten dizkigu" azaldu du Susana Mendiñuetak, Cederna Garalurreko teknikariak. "Eta, porrot egiteko beldurra ere, askotan, geldiarazten gaitu eta gogoia eta ilusioa kentzen dizkigu, baina atzokoan, Brikoyimi, Hidrorubber, Mugaip Aisialdia eta Sakantzen Sareko ekintzaileek posible dela erakutsi zuten. Egoera alda dezakegu, bestela egoerak gu paralizatuko gaitu".

Aurrenko Kedada Lesakanegin zen udazkenean. Osobalorazio ona izan zuenez beste bat egitea erabaki zuten, eta horrela sortu da Altsasukoa. Hurrengo bat ez dut baztertzeten; ziurrenik, Pirinioetan. Pirinioetan izanda ere, Sakandarrek ere bertan parte ahal izanen dute.

## &gt;&gt; Altsasu

## ADEren ikaragarriko eskaintzak

Larunbaterako, 10:00etatik 20:00etara, saltokiek azoka eta jolas parkea antolatu dituzte

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) bere eginen du bihar asteazkeneko azokaren espazioa, Iortia kultur guneko aurreko aldea. ADEko 13 establezimenduk haien sasoiko produktu onenen ikaragarriko eskaintzak eginen dituzte bihar. Azokarekin batera 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 19:30era haurrentako jolas parkea ere izanen da. Gainera, 18:30erako Hodei Magoaren ikuskizuna iragarrita dago. Musika, sorpresak eta animazioa ez dira faltako.

Merkataritzaren festa antolatu du ADEk hilabete honetan eta haren bidez erakutsi du elkarte-ko 33 establezimenduek eskaintza osoa eta kalitatezkoa dutela. Sustapen kanpaina horrekin Altsasuko merkataritza ehuna bizirik mantendu nahi dute.

### Zozketak

Postuak itxi ondoren, 20:15ean, bere bi sarien zozketa eginen du ADEk. Atzora arte elkarte-ko kide diren establezimenduetan 6 eurotik gorako erosketak egiten dituz-



Dendak, atzera ere, kalera aterako ditu Altsasuko Dendarien Elkarteak.

ten guztiek txartel bat jasodute. Zerbaki horiek 990 euroko bitxekeren zozketan sartuko dira bihar. Sari-tuek, 24tik 29ra, ADEko kide den establezimendu bakoitzean 30 euro gastatzeko aukera izanen dute.

Hilean zehar ADEko facebook profileko jarraitzaile egiten diren artean edo eskapadari buruzko sarreraren gogoko botoia saka-

tzen dutenen artean bi pertsonarendako eskapada bat zozketatuko da.

### Dendak

Txikitxo, La Cigüeña, ML Hombre, ML Mujer, Iker Kirolak, Tu Tien-da Especial, Joselen, Asensio Moda, Optika Sakana, Gorosti, Larka eta Izara.



MUNTAKETA ETA  
INSTALAZIOAK



PROIEKTU EOLIKOAK  
ETA FOTOVOLTAIKOAK



GESTIO ENERGETIKO  
ETA MONITORIZAZIOA

# San Joanak Sakanan

## San Joan, su gaua

Igandean, San Joan bezperan, sua izanen da protagonista. Uharte Arakilen, Arbizun eta Izurdiagan festa handiak ospatuko dituzte, Altsasuko San Joan auzoan bezala

Udako solstizioan, gaua eta eguna, eguna eta gaua parekatzen direnean, arbasoen ohiturak berreskuratzen ditugu. San Joan gaua izango da igandean, egun berezi eta misteriotsua. Aspaldiko ohiturei jarraiki sua izanen da protagonista nagusia herriz herri. Su garbitzailea, gauza txarrak erreko dituen guztia biziberri dadin.

Horretaz gain, Izurdiaga, Uharte Arakil eta Arbizuko zaindaria ere bada saildua eta haren ohoretz festa izanen dira. Altsasun ere festa txikiak ospatuko dituzte.

### IZURDIAGA

**Gaur 3 eguneko ospakizunak hasiko dira**

**>> Garagarzaroak 21, ostirala**

**20:00etan** Txupinazoa.  
**20:00etatik 22:00etara**

Otamena.

**22:00etan** Paella, tortilla eta postre lehiaketak.

**22:30ean** Lehiaketako jakiekien eta entsaladekin herri-afaria.

**1:00etatik 5:00etara** Dantzaldia Volumen orkestrarekin.

**>> Garagarzaroak 22, larunbata**

**11:00etatik 12:00etara** Futbol 8.

**12:00etatik 14:00etara**

Txirrista puzgarria, zezen mekani-koa, ohe elastikoak eta mini quad zirkuitua.

**14:30ean** Otamena eta bazkaria, bakoitzak berea eramanda.

**16:00etatik 18:00etara** Txirrista puzgarria, zezen mekani-koa, ohe elastikoak eta mini quad zirkuitua.

**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Volumen orkestrarekin.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**22:30ean** Afaria, bakoitzak berea eramanda.

**1:00etatik 5:00etara** Dantzaldia Volumen orkestrarekin.

**5:00etan** Txistorrada.

**>> Garagarzaroak 23, igandea**

**10:45ean** Meza.

**12:00etan** Gazteendako eta haurrendako jolasak.

**13:00etan** Otamena.

**14:30ean** Herri bazkaria, akordeoilari batek girotuta.

**19:00etan** Txokolatada.

**20:00etatik 22:00etara** Hirukote batek eskainitako kontzertua.

**22:00etan** Denendako bokatak eta San Joan suak.

### IRURTZUN

**Sua solstizioan, pertsonaia mitologikoak eta joaldunak**

Aizpea Euskara Taldeak antolatuko ditu San Joan gauaren ospakizunak, Orritz taldearekin batera. Gaueko 22:30ean Iskidiko joaldunak.



nak iritsiko dira plazara, eta segidan pertsonaia mitologikoek udako solstizioaren inguruko ekitaldia eskainiko dute. San Joan sua piztuko dute segidan, eta su gaineko saltokak iritsiko dira ondoren. Hiriberrin iluntzean Txitera elkartera gerturatuko dira herritarrak. Haren inguruan merienda-afaria egingen dute eta ondoren, elkartearen atzean aldean sua piztuko dute, San Joan suak saltatzeko.

### IRAÑETA

**Herri bazkaria Basakoetxea bordan eta Sanjuan sua**

Basakoetxeako borda berritu zenetik, azken bi urteetan herri bazkaria egin izan da bargan dagoen erakinean. Eta aurten bazkari hori larunbatean izanen da. 14:30ak aldera mahaira eseriko dira irintarrak eta gero, musika lagun, arra-

tsalde pasa ederra izango dute. Baina bazkari hau Sanjuan egunetik hurbil antolatzeak badu bere zeresana. Izan ere, lehen San Joanetan ospatzen ziren Irañetako festak. Nonbait garai honetan belarrak jasotzeko lanak zirela eta, festak abuzturaino atzeratzea erabaki zuten, eta Basakoetxeako bordako bazkaria San Joan ospakizunaren oroigarri polita izan daiteke.

Igandean, San Joan bezperan, afari-merienda egingo dute irintarrek elkartearen kanpoaldean. Otamenaren ondoren, gauean, sua piztu eta haren gainetik saltatuko dute.

### UHARTE ARAKIL

**Bihar hasiko dira San Joanak**

**>> Garagarzaroak 22, larunbata**

**12:00etan** Festei hasiera emango dion suzeria. Uharte Arakilgo erraldoi eta buruhandien

konpartsa, gaiteroekin. Festetako kartel lehiaketako irabazleei sari ematea -kartel guztiak alhondigian ikusgai egonen dira- eta 2012an jaiotako haurrei omenaldia. Auzatea plazan.

**13:00etan** Dantzak Galtz-Orratz taldearen eskutik.

**14:30ean** Herri bazkaria plazan.

**17:30ean** Uharte Arakilgo 2. Herri Desafioa. 1. Saria: Txerrikume bat, patata zaku bat eta ardoa. 2. Saria: 3 txistor eta ardoa.

**19:45ean** Mikel Donea Aingeruari harrera.

**20:00etan** Meza.

**20:00etan** Auzatea alhondigian.

**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**22:30ean** Parrillada herri-afaria (Mugatutako eremuan sua egiteko behar den materiala, ardoa, ogia, mahaiak eta aulkiak jarriko ditu Udalak).

**00:30etik 4:30era** Gaupasa Joselu Anaiak taldearekin.

**LONBREN denda**  
Zure eguneroko denda

**Aliprox**

**ONGI BILI SAN JUANETANI!**

Tel.: 948 460 330  
Kale Nagusia - ARBIZU

Erakutsi utzian

**FLORES S.L.**  
Artisan txistorretan

Nafarroako berezko txistorrak izan bat du

Txistor ekologikoa

**Ongi Pasa festak!**

Urtarril industriak - RIF. - Faxa: 948 460 499 - ARBIZU

# San Joanak Sakanan

## >> Garagarzaroak 23, igandea, San Joan bezpera.

**12:00etan** Meza.

**12:00etan** Auzatea alhondigan.  
**13:00etan** Uharteko erraldoi eta buruhandien konpartsa, trikitixaz alaiturik.

**17:30ean** Pilota partidak frontoian: Joseba Gorriti-Hodei Huarte / Arbizuko gazteak

**19:30ean** Sardinada, Aralar-Mendi elkarteak antolatuta.

**20:00etan** Auzatea alhondigan.

**20:00etatik 22:00etara**

Dantzaldia Bixente Setoainekin.

**22:30ean** San Joan suak.

**00:30etik 4:30era** Dantzaldia Bixente Setoainekin.



## >> Garagarzaroak 24, astelehena, San Joan eguna.

**10:00etan** Dianak gaiteroekin.

**12:00etan** Meza San Joanen omenez.

**12:00etan** Auzatea alhondigan.

**13:00etan** Uharteko zortzikoa eta Uharteko erraldoi eta buruhandien konpartsa. Uharteko zortzikoaren berreskurapenaren 25. urteurrena denean, aipamen berezia hori posible egin zutenei.

**17:00etan** Ur zezena herrian barna.

**18:00etan** Areto futbol partida:

Aralar Mendi / Uharteko taldea

**19:00etan** Txokolatada.

**20:00etan** Auzatea alhondigan.

**20:00etatik 22:00etara**

Dantzaldia ERROMERIA.COM taldearekin.

**20:00etan** 4. Patata Tortilla

Lehiaketa (Tortillak 19:30etik

20:00etara aurkeztu behar dira).

1. Saria: Txerrikumea. 2. Saria:

Zartagin sorta ederra. 3. Saria:

Ardoa. Ondoren, tortilla dastaketa.

**00:30etik 4:30era** Dantzaldia

ERROMERIA.COM taldearekin.

## >> Garagarzaroak 25, asteartea

**10:00etan** Erromeria Zamartze-

ra Uharteko konpartsa eta

gaiteroekin. Ondoren meza eta

auzatea.

**14:30etan** Jubilatuen bazkaria.

**16:00etatik 18:00etara**

Mariatxi emanaldia Duo Alazan mariatxien eskutik.

**17:30ean** Pailazo ikuskizuna

haurrendako. Popi eta Zarratrako.

**20:00etan** Auzatea alhondigan.

**20:00etatik 22:00etara**

Dantzaldia Disko Festarekin.

Oharra: Donibane jubilatua elkarteak proposatuta, antzinako ohitura berreskuratu nahi da, asteartean uhartearrak "txisperoz" janztera animatuz.

**Arruazun**, eguna iluntzen hasten denean, 21:00ak aldera, sua piztuko dute plazan. Arbazuarrak haren inguruan bilduko dira, salto eginez. Mokadurik ez da faltako. **Unanun**,

Lizarragan, Lizarragabengoan eta Etxarri Aranatzen ere su ederrak piztuko dituzte eta haien gainean saltoka ariko dira. Etxarrin zorriak eta partzak kentzeko eskatuko dute.

## LAKUNTZA

Lakuntzan ere poliki ospatzen da San Joan gaua. Lakuntzako kale eta txokoetan barna makina bat su piztuko dira eta asko eta asko izan dira haien gainetik salto egitera animatuko diren lakuntzarrak. "San Juan urdiña, onak zabaltzazu, geiztuek iyertzazu, geiztue den guziye onaa konpartitzazu" kantatuko dute saltoa egiten duten bitartean. Hainbat kaletan, bizilagunak mahaiaren inguruan bilduko dira afaltzera, sua ondoan dutela. Batzuk auzoka egingen dute eta besteek koardrilaka. 22:00etatik 24:00etara, lakuntzarren bilgunea elizako ezkil-dorrea izanenda. Gaueko hamarrak puntuan ezkilak jotzen hasiko dira, eta igotzen den orok kanpandorreo bi ezkil erraldoiak eta ezkil txikiak jotzeko aukera izanen du. Errepika eta erre-pika artean zeredana izanenda, ezkil-dorrean auzatea izanen baita.

## ARBIZU

### Igandean hasiko dira Sanjuanak

>> Garagarriak 23,



## igandea. San Joan bezpera

**19:30ean** Txupinazoa.

**19:30ean** San Joanera goera Jaiak txarangarekin.

**20:00etan** Bezperak San Joanen Arbizuko eta Etxarriko abesbatzarekin.

**20:30ean** Maria Lonbrenen Zaldiya.

**21:00etan** San Joandik jaitsiera

**23:30etik 3:30era** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

## >> Garagarriak 24, astelehena. San Joan eguna

**10:00etan** Dianak Jaiak txarangarekin.

**11:30ean** San Joanera goera.

**12:00etan** Meza nagusia.

**12:00etan** Haurrendako tailer-rrak.

**13:00etan** Aate (Alda Bide).

**13:30ean** Elai Alai Dantza Taldea (Arbizu eta Lakuntzako haurrak).

**14:30ean** Txaranga.

**17:00etan** Kalejira Jaiak txarangarekin.

**17:00etan** Haurrendako tailer-rrak.

**18:00etan** Bonba japoniarrak.

**18:30ean** Irrien Lagunen "Kultura plazara" ikuskizuna.

**20:00etan** Aate.

**23:00etan** Su artifizialak.

**23:59etik 3:00etara** Dantzaldia DJ Sergey.

## >> Garagarriak 25, asteartea. Kintoen

**eguna**

**10:00etan** Dianak Sakanako Trikitixa Eskolarekin.

**11:00etan** Kintoak "pixkeet eskien".

**11:00etan** Pilota partida finalak.

**12:00etan** Tailerak.

**12:00etan** Aate (Jubilatuak).

**17:00etan** Piperropilen tailerra.

**18:00etan** Bordetxe abere zirkoa.

**20:00etan** Aate eta Piperropilen dastaketa.

**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Modestorekin.

**23:59etik 3:00etara** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

## >> Garagarriak 26, asteazkena. Gazte eguna

**12:00etan** Aate (Argi Bidea).

**12:00etan** Haurrendako tailer-rrak.

**12:30ean** Astuan kaka proba.

**14:30ean** Gazte bazkaria.

**17:00etan** Piñata erraldoiak.

**17:00etan** Gazte ginkana.

**18:30ean** Herri kirolak (Herriko aizkolariak).

**19:00etan** Trikipoteoa.

**20:00etan** Aate.

**20:30ean** Julio Soto eta Eneko Lazkoz bertsolariak.

**23:30ean** Kontzertuak: Gozategi eta Stupenda Jones.

## >> Garagarriak 27, osteguna. Jubilatuen eguna

**12:00etan** Altxorraren bila.

**12:00etan** Jubilatuen meza.

**12:30ean** Herriko helduenei oroigarri banaketa.

**13:00etan** Jubilatuen luntxa.

**16:30ean** Truk txapelketa.

**17:00etan** Sakana euskara bidean dokumentalaren aurkezpena.

**19:00etan** Play Back txapelketa eta karaokea.

**20:00etan** Aate.

**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia herriko musikariekin.

**21:30ean** Emakumeen afaria.

**23:59etik 3:00etara** Dantzaldia herriko musikariekin eta Alerta Gorria taldearen kontzertua.

**OIHANA ILEAPAINDEGIA**

**ongi pasa festetan!!**

ILEAPAINDEGIA  
DEPILAZIOA  
MAKILLAJEA

ESTETIKA  
ZERBITZUA  
Ines Jaka  
637  
110  
448

arbizu • 948 461 698

**Ma Jose**  
ileapaindegia

**Ongi pasa festetan!**

686 192 252  
Fernando Urkia Kalea, z/g.  
**ARBIZU**

**ARBIZU CAMPING**

**Arbizuko ekokanpinoko taberna**

**Bazkariak eta afariak enkarguz**

**Etxeko pizzak**

**Pintxo pote ostegunetan 19:00etatik 22:00etara**

**Udan beti zabalik**

**Koldo Iturbide 630 250 745**

# San Joanak Sakanan

## DORRAO

### Dorraokoak San Joan ermitara

San Joanen omenezko ospakizunak gaur, ostiralean, eta bihar, larunbatean, egingen dituzte dorrobarrek. Gaur, ekainak 22, ostiralarekin, 19:00etan bezperak izanen dira San Joan ermitan. Arrosarioa errezatu eta meza izanen da. Elizkizunaren ondoren, bildutako guztiendako ardoa, gazta eta ogia banatuko ditu kontzejuak ermitaren atean bertan.

Hurrengo egunean, larunbatearekin, atzera ere ermitan bilduko dira dorrobarrak goizeangoiz. 9:00etan meza izanen dute eta, haren ondoren, elkartean herri guztiarendako gosaria prestatuko da. Bazkaria ere izanen da elkartean. Hartan, kontzejuko ordezkariak eta herriko etxebakoitzeko ordezkari bana bilduko dira.



## BAKAIKU

### Maiatza jaso eta sua piztu

Bihar, larunbatearekin, Bakaikuko plazan maiatza jasokoda. 15:30ean maiatza prestatuko dute eta 18:00etan ekinen diote bakaikuarrek maiatza jasotzeko lanari, Bakaikuko Gazte Asanbladako kideen ekimenez. Lana despeditu eta atse den hartu ondoren auzoan auzatean izanen da. Eta hurrengo egunean, igandean, San Joan bezperan, Bakaikuko Gazte Asanbladak suiraultzailea piztuko du iluntze aldera.

## ITURMENDI

Iturmendin auzatean bilduko dira San Joan bezperan, iluntze aldera. Zer jan eta zer edan ez da faltako. Bitartean Arrano Beltza plazaren erdian su handia piztuko dute.

## URDIAN

Urdiainen San Joan bezpera, igandean, sailduari eskainitako ermitan ospatuko dute. Hara jaisteko

19:30 aldera hitzordua jarrita dute herriaren etxeko atarian, eta, musika lagun, urdiaindarrak ermitara jaitsiko dira. 20:00etako elizkizuna eta gero, ermitako plazan sua piztuko da, eta txikienek arto koskolak sutan jarriko dituzte. Une horretan herriko neska gazteak, eskutik helduta eta egun honetarako propio aspalditik Urdiaingo hainbat etxetan gordetzen diren soineko tradizionalekin jantzita, suaren inguruan San Joan Kantaita famatua kantatzen hasiko dira. Haren bidez sailduari uzta onak eskatuko dizkiote. Dantzarien txanda eta gero herrirantz joko dute urdiaindarrek. Hantxe afariak egingen dituzte.

«Egun bai egun onek San Juan diruri, ez da San Juan bañan ala alunbra bedi.

Guazen San Juanera gaur arratsian, etorriko gerala bihar goizian...»

## ALTSASU

>> **Garagarriak 23, igandea, San Joan bezpera**  
17:30ean Loretsua zirkoaren



emanaldia, txokolate-jana eta hurrendako sorpresak San Joan kalean.

19:00etan Gasteizko Unibertsitateko tunaren emanaldia.

19:30ean Udaltzako txistulariekin batera, udaletxetik San Joango ermitara abiatuko da.

20:00etan Auzatea.

20:30ean Festaren hasiera: San Joango suaren piztea. Herriko suak pizteko txupin iragarlea. Kalejira eta auzatea Foruen Plazaraino.

21:30ean Betijai fanfarreak suak dauden kaleak girotuko ditu gauean zehar.

23:00etatik 2:00etara Dantzaldia Ibai berriak taldearekin San Joan kalean.

>> **Garagarriak 24, astelehena, San Joan eguna**

20:00etan Zortzikoa eta auzatea Foruen plazan. Meriendak.

22:00etatik 1:00etara Dan-

tzaldia Modestorekin Foruen Plazan.

**Eguberak Udako Solstizio festa antolatu du**

Aurreko bi urteetan bezala, Egubera taldeak udako solstizio festa antolatu du igandean, San Joan bezperan. 19:45ean hasiko da, Foru plazan. 20:00etan sua piztuko dute, sasoi aldaketa islatzeko, eta suaren omenezko aureskua dantzatuko dute dantzariak. Fanfarrearen eta Zubiondo abesbatzaren doinuak aireratuko dira. Eta, jakina, mihura ere erreko da. Ondoren auzatea izanen da plazan.

**Abardi lehiaketa deitu du Udalak** San Joan egunean, astelehenean, argitze berezia izanen da Altsasun. Izan ere, ohiturari jarraituz, San Joan eguneko egunsentian iratzekak moztu eta etxeetako ateen aurrean jarriko dituzte altsasuarrek, etxeak babesteko.

Bestalde, balkoi batzuetan ere utzi-ko du San Joan gauak arrastorik. Maiteen balkoietan lizar adarrak

jarriko dituzte batzuek, eta aurkako pertsonen balkoietan, berriz, txipua edo makala. Ildo honetan, Altsasuko Udalak abardiak jartzeko ohitura hau mantendu nahi du eta horretarako abardi lehiaketa deitu du. Hortaz, bidali zure abardiaren argazkia eta zure datuak iortia@altsasu.net posta elektronikora ekainaren 27a baino lehen, eta parte hartzaile guztiendako saria egonena da. Altsasuko festetako herri bazkariko lau txartel. Naturala ez den abardia egin daiteke ere.

**Suen inguruko gomendioak**

San Joan suak pizteko ondoko gomendioak luzatu ditu Altsasuko Udalak: basotik egurra hartu behar bada, haizeak botatuko adarrak edotasiaz izatea. Eta zorua babesteko ezinbestekoa izango da lehenik azpian area botatzea. Ondoko tokietan jaso ahal izango da area: Pilotajauku, Amandrea, Zubeztia, Zelai, Intxaurrondo, Idertzagain, Amaia, Zumalakarregi eta Iortia Kultur Gunean.

## HERRIRA-REN EGITARUA

>> **San Joan bezpera**  
21:30ean Herri-afaria gaztetzearan.

## OLATZAGUTIA

Olatzagutian ere suak piztuko dituzte igande gauean, baina egun bat lehenago, larunbatean, Olatziko Udalak antolatutako Batuekoko erromeria ospatuko dute izen bera duen eta Altzania magalean dagoen iturrian.

>> **Batueko 2013, larunbatean**

10:00etan Batueko igoera Olatziko San Migel plazatik Burundako txistulariekin.

11:00etan Hamaiaketako goxo goxoa Batuekon.

14:30ean Autogestionatutako bazkaria koadrilen artean.

17:30ean Dantzak, kantak, irrifarrak... La Cigarra txarangarekin.

19:00etan Sardinada Batuekon (euria eginez gero herrian)

23:00etatik 2:00etara Disko festa San Migel Plazan.

## ZIORDIA

### San Joan sua txipudian

Ziordiarrek txipudian eta Gaztelu inguruan bilduko dira San Joan gauaz gozatzen. Gaueko 9:00etan, suapiztearekin batera, Udalak odolkiak eta saiheskiak egingen ditu parrillan bildutako guztiendako, eta, jakina, ardoa ere ez da faltako. Ziordiko zinegotziak izango dira merendua herritarrei banatuko dietenak. Merenduarekin eta suarekin ospatuko dute ziordiarrek San Joan.





MARTXA

**OLINPISMOAREKIN BAT:** Olinpismoaren Egunaren harira martxa antolatu dute igandean Iruñean, 5 km-koa. Nafarroako

20 kirolari inguruk emango dute lekukoa, tartean Rosa Jaka eta Ioseba Fernandez kirolari sakandarrak.

# kirola >>

## Pilota

### Errege Kopa Nafarroarendako

Nafarroako pilota selekzioak Errege Kopako txapelketa irabazi du, Zamorako San Atilano pilotalekuan jokatu ziren 4 finaletako 2 irabazi eta gero. Esku pilotako buruz burukoan Irurtzun klubeko Armendarizek 2-0 galdu zuen Gaztela eta Leongo Cabrerizoren kontra (10-4 eta 10-1), baina binakakoan Rekaldek eta Peñasek 2-1 irabazi zieten Dario eta Matuteerrioxarrei (10-4, 5-10 eta 5-2).

&gt;&gt;

### Olaztikoko XLII. San Migel Pilota txapelketa

Olaztikoko San Migel elkarteak eta Sute-gik antolatutako pilota txapelketa-ren barruan jardunaldi polita jokatu da asteburuan.

#### Asteburuko partidak

**Gaur, ostiralean, 20:30ean**

**1.maila:** Murgiondo-Agirre/Senar-Gebara

**3.maila:** Iñaki-Migel/Victor-Zornoza

**Afizionatuak:** Armendariz-Mitxelena / Larrañaga-Beobide

**Bihar, larunbatean, 18:30ean**

**3. maila:** Iñigo-Borja / Iñaki-Ibon  
Aitor-Katxi / Etxeberria-Muñoz  
Mendiluze-Vicario/Barban-Pazku

&gt;&gt;

### Festetan pilota Uhartan eta Arbizun

Uhartan Arakilen, igandean, San Juan bezperan, pilota partida jaialdia antolatu dute. Joseba Gorriti eta Hodei Huarte pilotariak Arbizuko bikote baten kontra ariko dira, 17:30ean. Aldiz, Arbizun, asteartean, pilota partida txapelketako finala jokatuko dira goizeko 11:00etatik aurrera.

## Frontenisa

VI. SAKANAKO EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA

### Finaleko txartelak daude jokoan



Maite Ruiz de Larramendik eta Yanira Aristorenak finalerdia jokatu dute.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Etxarri Aranzako Gure Pilota klubaren eta Olaztikoko Pala arduradunen laguntzarekin antolatutako VI. Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketa apirilaren erdialdean hasi zen. Ordutik guztira 18 bikote aritu dira lehian, 9 lehen mailan eta beste 9 bigarrean.

Hasierako ligaxkan 9 jardunaldi jokatu eta gero, bikote onenak finalerdietarako sailkatu dira. Asteburu honetan jokatuko dira finalerdia, gaur, ostiralean, Etxarri Aranzaten, eta, igandean, Olaztik. Partida ikusgarriak espero

#### Finalerdiak

**Ostiralean, Etxarri Aranzaten**  
**2.maila:** Maider-Leonor / Andrea-Izar (19:00etan)

**1.maila:** Mireia-Elena / Ruth-Yolanda (19:30ean)

**Igandean, Olaztin**

**2.maila:** Uxue-Irati / Ane-Uxue (16:30ean)

**1.maila:** Yanira-Maite / Edurne-Vanesa (17:00etan)

dira, ekainaren 28ko final handietarako txartelak baitaude jokoan eta puntako palistak daudelako lehian.

## Aizkora

### Nazabal, orain Urrezko Aizkolari Txapelaldunaren Ligari ekitera

Asteburu honetan hasiko da Urrezko Aizkolari Txapelaldunaren Liga. Sei aizkolari arituko dira: Urrezko Aizkorako irabazlea den Floren Nazabal, Aitzol Atutxa txapelaldunordea, 3. sailkatutako Joseba Otaegi, 4. sailkatutako Jon Rekondo, 5. sailkatutako Ugaitz Mugertza II eta 6. sailkatutako Juanjo Lopez Azpilikueta. Ander Erasun izango da ordezkoa.

Aizkolari Txapelaldunaren Ligako lehendabiziko jardunaldia igan-



dean jokatu da, Bilboko La Peña auzoan, 12:30ean. Floren Nazabal eta Juanjo Lopez Azpilikueta ariko dira aurrez aurre. Aizkolari bakoitzak sei lan egin beharko ditu, guztira 9 enbor erdibituz.

## Motoziklismoa

### Mariñelarena, lidergoa berreskuratzera

ESPAINIAKO ABIADURA TXAPELKETA 3. LASTERKETA JOKATUKO DU ALBACETEN

Asteburuan Espainiako Motoziklismoko Abiadura Txapelketako 3. lasterketa jokatu da Albaceteko Zirkuituan. Montmelóko lehendabiziko proban irabazi eta Aragoiko MotorLaneko 2. proban arazoak izan eta 3.a izan eta gero, egun Espainiako Abiadura Txapelketako Moto 2 mailan Roman Ramosek duen lidergoa (65 puntu) eskuratzeko gogoz lehiatu da Alex Mariñelaren pilotu irurtzundarra (Targobank Motorsport, Suter, 41 puntu).

Albaceteko Moto 2 mailan aritzeko 22 pilotuk eman dute izena, tartean Mariñelarenak. Gaurentrenamendu libreak izanzen dituzte, bihar entrenamendu ofizialak, eta, igandean, 12:00etan hasiko da lasterketa. 3,5 km-ko zirkuituari 20 itzuli eman beharko dizkiote.

[www.equipotargobank.es](http://www.equipotargobank.es)

Alex Mariñelaren taldearen web gunea, informazio guztiarekin.



## Botxa

### Iratxo Botxa Txapelketako finalak jokoan

Sailkapena:

1.	Tximeleta	8
2.	Lirainak	8
3.	AHTrik Ez	6
4.	Tirillas	4
5.	Migel-Felix-Xabier	2
6.	Desesperados	0

\*Oharra: Oraindik ligako partida bat jokatzeko falta da: AHTrik Ez - Tximeleta

Botxa petanka antzeko joko tradizionala da eta Irurtzango Iratxo elkartearen lan handia egiten dute aipatu kirola mantendu eta sustatzeko. Horrela, urtero antolatzen duten Iratxo Botxa Txapelketako azken txanpa asteburu honetan

#### Iratxo Botxa Txapelketa

**Ostiralean finalerdiak**

**19:30ean:** 1. postua - 4. postua

**20:30ean:** 2. Postua - 3. Postua

**Larunbatean final handiak**

**19:00etan:** 3. eta 4. postuak

**20:30ean:** Finala.

jokatu da, Iratxo elkartearen botxategian. Ostiralean finalerdien txanda izanzen da; eta, larunbatean, final handiena. Ondoren sari ematea izanzen da.

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda  
Testu eta oporretako liburuak enkargatu!

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**KIROLDEGIKO TABERNA**  
Ongi pasa festetan!!  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
677 450 491 • ARBIZU

**karrika taberna**  
948 46 21 37

## Mendi txirrindularitza

# 84 txirrindularik batu zituzten Aralar eta Beriain

Igandean eguraldi onak presente egon nahi izan zuen 1. Aralar-Beriain BTT martxan eta goizeko 9:00etan 84 bikerrek hartu zuten irteera, aipatu bi mendiak batu zituen 40 km eta 1.800 metroko desnibela zuen proba betetzeko asmoz. Gogoz berotu zuen eguzkiak eta are gogorragoa egin zuen Uharteko Arakilgo proba ez lehiakorra.

Lehenik eta behin Aralarreara zuzendu ziren txirrindulariak. Atatik barna Aralarako San Migel santutegira heldu ziren eta Madotzera jo zuten, pista eta eremu ikusgarrietatik 1.133 metrora zegoen hornidura guneraino iritsiz. Segidan, oso teknikoak zen senda batek Uharteko Arakilera jaitsi ziren bikerrak eta ondoren Beriainera igotzeari ekin zioten, Itxesia igerilekueetatik gora dagoen baso pista batetik, San Bartolome ermitatik gora. Uharteko Arakilera senda batek jaitsi ziren. Txirrindulariak azka-

rrenek 2:36ko denbora behar izan zuten proba osatzeko eta hortik aurrera iritsi zirengainontzekoak.

Tamalez, biker batekerorikoa izan zuen Atan, eta tibia eta peronea apurtu zitzaizkion. "Traktoeren marka batzuk zeuden eta ez dakigu horregatik edo baina erorikoa izan zuen txirrindulariak. Kasualitatez bertatik mendizale talde bat zihoan, Lekunberriko mendi martxa egiten, eta tartean zegoen txirrindulari horren famili-medikua dena. Berehala artatu zuten. Txirrindularia eta familia oso eskertuak zeuden arretagatik" adierazi digu antolakuntzako Ainara Aiestaranek.

## Paraje ederrak

Txirrindulariei izugarri gustatu zitzaien proba. "Gogorra eta oso ederra iruditu zitzaie, bereziki Beriaingo zatia. Guk balorazio positiboa egiten dugu" gaineratu du



Txirrindulariak Uharteko Arakilen, proba hasi baino lehen. ERKUDEN RUIZ

Aiestaranek. Hurrengo urtean jarraitzeko asmoa dago. "Txirrindulari batzuek esan ziguten: hurrengo urterarte! Beraz..." zioen Aiestaranek.

Ibilbidea bukatzerakoan txistorjatea izan zen. Partaide guztiek martxako kamiseta jaso zuten opa-

ri eta ondoko sariak zozketatu ziren: Uharteko Arakilgo Gari Gutxi landa etxean asteburua, Latxa Esnea kooperatibako gaztak, Cachet jantzi sorta, Mendinueta harategiko txistorra sorta, Kaiku produktu sorta eta Uharteko Arakilgo Arribicin 100 euroko txartela.

## Txirrindularitza

## Zabaletarendako Arbizuko II. Masterra

URDIAINDARRA IZAN ZEN LEHENA, IRAITZ GOÑI ARBIZUARRA 3.A ETA MIKEL SARASOLA ALTSASUARRA 4.A

### Sakandarrak Arbizuko II. Masterran:

1.	Iker Zabaleta (Goerna)	2:07:26
	(master 40ean lehena)	
3.	Iraitz Goñi (Goerna)	2:07:26
	(master 30ean lehena)	
4.	Mikel Sarasola (Aralar)	2:07:26
	(master 30ean bigarrena)	
29.	Alfredo Amillano (Aralar)	2:11:06
45.	Alejandro Maya (Ciclos Gamen)	2:14:03
48.	Angel Moreno (Ciclos Gamen)	2:15:53

Zapore sakandarra izan zuen igandean jokatu zen Arbizuko II. Master Sariak. Txirrindulariek 82 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten, eguzkiak, hego-haizeak eta beroak zaindutakoa, Lizarragako katea barne.

60 txirrindularik hartu zuten irteera eta sakandarrak puntan



Iker Zabaleta helmugara iristen. ARALAR

ibili ziren. Laukote batek ihes egin zuen baina taldetxo batek haiek harrapatzea lortu zuen. Helmugan Iker Zabaleta urdiaindarra (Goer-

na) gailendu zen (2:07:26), besteak beste Angel Acedorekin (Txindokipe), Iraitz Goñi arbizuarrarekin (Goerna) eta Mikel Sarasola altsa-

suarrarekin (Aralar) esprint estua jokatu eta gero. Proba irabazteaz gain master 40 kategorian lehena izan zen Iker Zabaleta. Helmugan 3.a izan zen Iraitz Goñi master 30 mailako lehena izan zen eta 4.a sailkatu zen Mikel Sarasola bigarrena. Master senior mailan Ion Zeberio nagusitu zen (2:08:23), master 50ean Jose Javier Ruiz (2:09:51), eta master 60an Luciano Mitxelena (2:08:04). Hurrengo lasterketa igandean jokatu da, Arizkunenen, Nafarroako Master Txapelketa izango dena.

## Profesionalak

Movistarreko Rui Costak irabazitako Suitzako Itzulian Gorka Verdugo 46.a izan zen, 30:05era; eta Jorge Azanza 55.a, 36:31era. Pablo Urtasunek, aldiz, ezin izan zuen Luxenburgo Tourra bukatu. Bestalde, asteburuan Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira.

## Mendi lasterketa

## Sakandarrak Gasteizko proban

Igandean II. Vitoria-Gasteiz mendi lasterketa (15,5 km) jokatu zuten 360 korrikalarik. Ion Sola (1:16:14) eta Maider Calleja (1:32:34) izan ziren txapelkunak. Hainbat sakandar aritu ziren proban. Francisco Javier Cano 36.a izan zen (1:34:01), Andoni Azanza 54.a (1:37:27), Iban Gonzalez 73.a (1:41:48), Borja Gonzalez 89.a (1:44:33), Jose Ignazio Paniagua 90.a (1:44:34) eta Iker Flores 127.a (1:50:33).

## Triatloia

## Sakandarrak Santurtziko Triatloian

Larunbatean Santurtziko Triatloia jokatu zen (750 m igerian, 18 km bizikletan eta 5 km korrikan). Jon Unanue (57:17) eta Pilo Bodegas (1:06:36) izan ziren azkarrenak. Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 44.a iritsi zen helmugara (1:08:25) eta Isidro Asurabarrena 49.a (1:09:28).

## Sega

## Mitxelena bigarrena da Euskal Herriko Nazioarteko erako Segaligan

Igandean Euskal Herriko Nazioarteko erako Segaligan bigarren saioa jokatu zen. Gizonezkoetan bakoitzak 100 metro karratuko saila moztu behar zuen, eta lehen jardunaldian bezala, Joxe Gabirondo Gazteluko segalari beteranoa izan zen onena. Bere atzetik Altsasun bizi den Bixente Mitxelena segalari oiartuarra sailkatu zen, lan bikaina egin eta gero. Bi segalari hauen artean egongo da txapela, nahiz eta Gabirondok abantaila izan. Azken saioa ekainaren 30ean jokatu da, Azpeitian.

## Gimnasia erritmikoa



Zintarekin lanean. ERKUDEN RUIZ

## Erakustaldia Altsasun

Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldeak gimnasia erakustaldia egin zuen asteburuan, kurtso bukaerako erakustaldia, hain zuzen. Musikari jarraiki koreografia ederrak antzeztu zituzten gimnastak, urtean barna ikasitakoa erakutsiz.



## Aramendia txapelkun Nafarroako Erlojupeko Txapelketan



Aramendia, podiumean. BURUNDA

Larunbatean Nafarroako Erlojupeko Txapelketa jokatu zen. Junior mailan Villaves taldeko Migel Indurain izan zen azkarrena, Lizarra taldeko Benjamin Gomezi 2 segundo eta Aralar Txirrindulari Taldeko Pablo Villar hiriberrirari 7 segundo aterata.

Kadeteen mailan Burunda klubeko Quesos Albeniza taldeko Eneko Aramendia izan zen txapelketa (15:03), Ciclos Lizarrako Diego Lopezi 9 segundo eta Ermitagaña klubeko Urko Berraderi 27 segun-

do atera eta gero. Aralar taldeko Iria Inter Sport taldeko Xabier Maiza 9.a izan zen, 1:29ra.

Gainontzeko sakandarren postuak: Gorka Arbizu (Aralar), 11.a, Eneko Vilar (Burunda) 15.a eta Aritz Irigoien (Burunda) 16.a, Izai Mauleon (Aralar) 21.a, Josu Gabirondo (Burunda) 23.a, Unai Zubiria (Aralar) 26.a, Oier Larunbe (Aralar) 37.a, Fco. Javier Lopez (Aralar) 38.a, Alex Unzilla (Burunda) 42.a, Eneko Unanue (Aralar) 44.a eta John Alexis Cabrera (Aralar) 52.a.

## Insausti Euskadiko txapelketa



Gogegik 23 urtez azpiko Euskadiko Erlojupeko Txapelketa hartu zuen larunbatean eta Rural Kutxa talde sakandarreko Jon Ander Insausti izan zen azkarrena, Baqué taldeko Goikoetxeari 7 segundo aterata. Mutiloako 21 urteko txirrindularia pozik zegoen, are gehiago urte gogorra daramalako, lesio kontuengatik.

## Atletismoa

## Javi Moreno laugarrena Araiako krosean

Sakandarrak Araiako krosean (6.100 m):

Gizonezkoak	
1. Iban Rodriguez	19:50
4. Javi Moreno	20:41
(lehen beteranoa)	
13. Juanxo Arregi	21:59
35. Julen Paniagua	23:57
43. Emilio Guirado	24:13
55. Santi Agirre	24:58
57. Ismael L. de Goikoetxea	27:20
101. Jose Luis Mateos	28:44
113. Eusebio Vinagre	29:57
120. Aingeru Azazeta	31:06
127. Jon Garasa	32:54
137. Ernesto Leiza	36:06

Emakumezkoak	
1. Laura Garcia	23:00
16. Marijo Arza	31:06
17. Jone Pelaez	31:07
24. Beatriz Arguelles	32:53

Igandean 200 korrikalarik hartu zuten parte Araiako krosean (6.100 m). Gizonezkoetan Iban Rodriguez nagusitu zen (19:50). Makina bat sakandar lehiatu ziren. Javi Moreno altsasuarrak primerako lasterketa egin zuen eta laugarren postuan iritsi zen helmugara (20:41), probako lehen beteranoa. Emakumezkoetan Laura Garcia izan zen azkarrena (23:00) eta Marijo Arza (31:06) eta Jone Pelaez (31:07) altsasuarrak lehen sakandarrak. Proba nagusia baino lehen kategoriari txikiko lasterketak izan ziren. Haurren mailan, mutiletan, Fermin Azkargorta izan zen txapeliduna eta emakumezkoetan Leire Chamorro 3.a. Kimuetan Amaia Vicente 3.a izan zen, eta aurrebenjaminetan, emakumezkoetan, Saioa Guirado 16.a eta Maitane Moreno 33.a, eta, gizonzkoetan, Ekhi Barandiaran 15.a eta Julen Zelaia 39.a.

## Txirrindularitza

## Ciclos Muruzabal laguntzeko ekimena martxan

**Joxi Lazkoz etxarriarrak kudeatzen du sute batengatik kixkali den denda**

Aurreko astean Barañaingo Ciclos Muruzabal txirrindulari denda sutea piztu zen eta denda ia guztia erreta gelditu zen. Aipatu denda Joxi Lazkoz etxarriarrak kudeatzen du, bere arreba eta anaia batekin batera. Guztia eraberritu arte buru-belarri lanean ari dira lazkoztarrak.

## Kontu korrantea zabalik

Hainbat txirrindulari elkartasuna adierazi nahi izan diete Ciclos Muruzabal denda kudeatzen duten etxarriarrei "edozein arazo mekaniko izan dugunean beti Joxiren laguntza jaso dugulako eta berak munduko ordu guztiak eskaini dizkigulako guri laguntzen". Horrela, "Ayuda Ciclos Muruzabal" komunitatea sortu dute facebooken. Kontu korrante bat zabaldu dute Euskadiko Kutxan, ondoko zenbakia duena: 3035 0101 98 1011056909. Bertan dohaintzak jasotzen dira, Ciclos Muruzabal lehenbailehen martxan jartzeko laguntzera bideratuko dena.

## Irristaketa

# Unanua eta Aldeano ongi Espainiako Txapelketan

Asteburuan Espainiako Irristaketa Zirkuituko Abiadura Txapelketa jokatu da Gijonen. Sakana Irristaketa Taldeko Maialen Unanua urdiaindarra eta Cristina Aldeano altsasuarrak sailkatu ziren aipatu txapelketan aritzeko, emakumezkoen junior mailan. 46 irristalari aritu ziren Espainiako Txapelketako emakumezkoen junior mailan eta sakandarrak 8. eta 11. postuetan sailkatu ziren. "Zorionak beraiei.

Sekulako lana egin zuten" adierazi du Juli Acebes entrenatzaileak.

Asteburuan, ekainaren 22an eta 23an, Espainiako Zirkuituko Txapelketa jokatu da haurren eta gazteen mailan, eta horretaz gain kimuen Espainiako Kopa egonen da jokoan. Sakana Irristaketa Taldeko 3 irristalari ariko dira: kimuen mailako Anne La Puente eta haurren mailako Ander Txamorro eta Unai Villalobos.



Cristina Aldeano eta Maialen Unanua.

## Futbola

IZURDIAGAKO FUTBOL 8 TXAPELKETA

## 3. eta 4 postuak jokoan

RAJATABLAK ETA GUANLARRAZEK 3. ETA 4 POSTUA DUTE JOKOAN BIHAR. AURRETIK EMAKUMEZKOEN FUTBOL PARTIDA IZANEN DA

Izurdiagako Futbol 8 Txapelketa azken txanpan murgilduta dabil. Aurreko larunbatean Lakuntzako Karrotillok eta Gunea-Tabernak 5. eta 6. postuak erabakitzeke lehia jokatu zuten. Partida oso lehiatua, azkenean Gunea-Tabernak 6-5 irabazi zion Lakuntzako Karrotillo taldeari. Bukaeran, giro bikainean, auzate bikainaz gozatzeko aukera izan zuten bil-dutako guztiek.

Bihar, larunbatean, 19:00etan 3. eta 4. postuak erabakitzeke partidak jokatu dute Arakilgo Rajatablak eta Irurtzungo Guanlarrazek. Giro lehiatu berezia espero da, derby itxurakoa. Baina lehenago emakumezkoen futbolaz gozatzeko aukera izango da Izurdiagako futbol zelaietan, 17:00etan, Toldos Berriainz eta Orkoiengo Kirol Sport taldeen arteko lehia jokatu ko baita.



Lakuntzako Karrotillo taldekoak 6.ak sailkatu dira. UTZITAKOIA

## Areto futbola



Plantillan aldaketak egongo dira.

## Xota izen berriaren bila

TRIMAN EZ DA XOTAKO BABESLE NAGUSIA IZANEN ETA IRURTZUNGO KLUBA BABESLE BERRIAK BILATZEN ARI DA

Tatono Arregi irurtzundarrak zuzentzen duen klubean babesle berriak lortzeko lanetan murgilduak daude buru-belarri. Izan ere, Trimane Xotako babesle nagusi izateari utziko dio, 3 urteko hitzarmenaren ondorioz. "Hiru urte iraun duen elkarlanaren ondoren Trimane Xotako babesle nagusia izateari utziko dio. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Trimani eman diguten babesarengatik. Gero arte esan digute, baina gure bideak berriro ere elkartuko dira" adierazi du Xotako presidente Tatono Arregik.

Horrela, babesle berriak lortzeko lanetan dabilta Irurtzungo klubean. Bigarren mailako babesle ugari ditu Xotak, baina babesle nagusia edo inportanteena lotzea falta zaie, klubaren

izen berria izango dena. "Proiektuak aurrera egingo duenaren ziurtasun osoa dugu. Kluba berrindartuta aterako da eta ziurrenik uztailek izen berri bat ekarriko digu. Lanean ari gara" gaineratu zuen Arregik.

## Plantillako aldaketak

Plantillari dagokionez, Ximbinha eta Araçaren bajak asko nabaritu ko ditu Tatonoren anaia Imanol Arregik zuzentzen duen taldeak. Bi jokalariei kontratua bukatzen zaie eta Xotak ezin die eskaintzarik egin, babesle berria lotu arte, bederen. Rafa Usini urte bateko kontratua geratzen zaio eta bere atzetik hainbat klub daude. Kasu guztietan Xotak gainontzeko taldeekin ahal dituzten diru eskaintzak berdintzeko aukera du.

ARBIZUKO UDALA

2013

SAN JUANAK

ARBIZU - EKAINAREN 23TIK 29RA



**INKOMUNIKAZIO LOTURAK:** Hileko lehen bi eguntan Nafarroako Antzerki Eskolak Aran-Aran konpainiaren Nudos antzezlanaren mustutzea hartu zuen. Tartean dira Xabier Artieda eta Eva Azpilikueta.

# kultura >>

## Etxarriko plaza **Ranbla bihurtuta**

Artiekalia!-ak sortzaileen bilgune bihurtuko du plaza

**E**txarriko Ranblak. Izen hori eman dio Artiekalia! taldeak gaurko antolatutako duen ekimenari. Bere helburua "gure inguruan ditugun hainbat sortzaile lanak ezagutaraztea da". Horregatik, Artiekalia!-koek, "Ramblen izpiritu hori jarraituz, Etxarriko plazara nahi duena gonbidatzen

dugu, bere lanak erakutsi eta besteak ezagutzeko".

Gutxieneko egitarau bat prest dute, baina ez dago itxita, "gaur bertan sortuko den ekintza parte-hartzaile ireki bat baizik". Ranbla eguna, beraz, ekintza sortzailea izanen da bere horretan. Eta gaurkoa udako solstizioa denez, Akelarre txiki bat egingen da, "nahi duenak suaren inguruan dantzatu ahal izateko eta bere desioak bete-arazteko". Artiekalia!-koek parte



### Egitaraua

**18:00etatik 20:00etara** Plazan zuzeneko musika, artisaubatuak, argazki ekintzak, aurpegi margotzea, dantzariak...  
**21:00etan** Kantu poteo girotua.  
**22:30ean** Salsa dantaldia, plazan.  
**23:00etan** Akelarrea. eta ondoren dantza eta Etxarriko abesbatza.

hartzera deitu dute.

Duela bi urteko irailaren 18an antolatutako arte eguna da Artiekalia! taldeak gaurko ekimen honen azken aurrekaria. Orduko hartan herriko makina bat sortzailek parte hartuzuten egun arrakastatsuan.

## Musikatutako erretratua

**Heldu den ostegunean, hilak 27, 20:00etan Altsasuko Gernika tabernan**

**L**agunak dira Jokin Alegria, Kale, eta Dj Nestortxo. Biek ere musika gogoko dute. Alegria musikariaren aurpegiak margotzen hasi zen eta aurretik biek zuten loturatik sortu zen The art

Confusion ekimena. Dj Nestortxo jartzen duen musika estiloaren arabera, Alegriake estilo horretako musikari baten erretratua egiten du.

Dj-ak zein musika estilo jarriko duen aurretik hitz egiten dute. Izan daiteke punka, rock and rolla, euskal musika, reggea edo beste bat eta estiloaren arabera Ale-

griak pintzela hartu eta pintura akrilikoarekin musikariaren erretratua egingen du. Bi artistek ordu eta erdi edo bi orduko saioa egingen dute. Bitarte horretan zozketa baterako txartelak salduko dira eta zenbaki sarituak Alegriaren koadroa eramanez du etxera.

+www.guaixe.net

## Olatzagutia mihisetan

**O**latzagutiko etxeak, plazak eta txokoak izan ziren protagonistak igandean VI. Olatzagutiko Pintura Azkarreko lehiaketan. Parte-hartzaile bakoitzak bere estilora Burundako herria irudikatu zuten. Eguzkiaren argiarekin baliatuz edo itzalen argilunaz aritu ziren ume eta helduak. Azken horien artean, Iruñetik etorritako Keiko Hoshinok 500 euroko saria jaso zuen. Jose Luis Ramos Baztarrrika donostiarra akzesita sari jaso zuen. Olatzagutiko margolari hoberena Cristina Leire Pinto Fuste izan zen, 200 euroko sariarekin.

Gazteen artean sari bakarra banatu zen, olaztirrendako saria, hain zuzen. Ander Gil Amadok ira-



ERKUDEN RUIZ BARROSO

bazi zuen. 150 euroko balio txartela irabazi zuen. Ume mailan Nahia Gil Amadok irabazi zuen lehenengo saria. Maren Arrizabalaga Otxoaerrartek bigarren saria jaso zuen eta Amañur Marquez Imazek eskuratu zuen azken saria. Hirurak olaztiarrak dira.

## Aldazen erakusketa Bruselan

**P**ausu eta hazbete artean (Between steps & inches) izenburua eman dio Laida Aldaz Arrieta etxarriarrak Bruselako De Kriekelaar kultur gunean jarri duen erakusketari. Adriana Sotelo Ramirezekin batera sortu du erakusketa (2007tik ari dira elkarlanean). Hutsik dauden espazioetan asmatutako eszenatokiak sortzen ditu erakusketak. Eta horretarako eguneroko objektuak dira abiapuntua; etxe bateko gelak eta egoerak islatzen dira.

Aldazek artilez egindako amomak objektuetatik sorrarazten ditu, haiek espazioarekin konetatuz eta bien arteko elkarrizketa sortuz. Bien arteko ekintza sortzen



ADRIANA SOTELO RAMIREZ

dute amomek, baina aldi berean, denbora gelditzen dute. Erakusketa espazioetara egokitzen da, beraz, bakoitza bakarra eta errepika ezina da. Ondorioz, proposamena etengabeko eraldaketan dago.

Espazioa objektuak eta gorputzen arteko erlazioaren gainean lan

egiten ari da Aldaz. Hiru elementuetako bat aldatzean egoerak har ditzakeen esanahiak ikertzen ari da. Aipatu erakusketa atzora arte egon zen ikusgai, eta 2009an Nafarroako Artista Gazteen Lehiaketako Arte Plastikoetako bigarren saria eskuratu zuen. +www.guaixe.net

## Dantza plazara

**H**iriberriko dantza tailerrak emeraldia. Saltoka dantza taldeak herritarrek gonbidatu zituzten dantzaldian parte hartzera. Fandangoa, arin-arina, chapelois, kontrapasa... hainbat euskal dantza izan zituen saioak. Dantzan ez zekitenek ikasteko aukera izan zuten, bertan urratsak pixkanaka erakutsi baitzituzten. Hasieran



ERKUDEN RUIZ BARROSO

kosta zitzairen arren, herritarrek lotsa alde batera utzi zuten, eta plazara dantza egitera atera ziren. Zailtasunak zailtasun, ongi ikasi zutela erakutsi zuten dantzariak baita herritarrek ere.

**maríaeugenia Arrainak**  
 www.pescaderiamariaeugenia.com  
 Arratsalde zabalik

**San Juanetan erosi sardinak eta bakailaoa**

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
 El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Iturgintza  
 Berogintza  
 eta Gasak

**PEIO**

659 286 344

**BUJANDA**  
 okindegia

**bai**

Tel.: 948 467 503  
 Kale Nagusia 31, OLAZTI

**TxikiTxo**  
 haurren arropa eta leizeria

**set**  
 feel great!

948 46 73 08  
 Ferialeku 2 - ALTSASU

# Arretxe: Biziraupenaren muga sinbolizatzen du izenburuak

Hilabete bada kalean dela Jon Arretxeren azken nobela beltza, **612 euro**

**J**on Arretxek Belexe Irratian (FM107,3) aitortu du oso pozik dagoela liburuak izan duen harrerarekin. "Liburuaren inguruko industria oso gaizki dago eta une honetan liburu bat kaleratzea eta jendeari gustatzea, oso ondo saltzea, pozgarria da, benetan, eta ni oso pozik nago". Aurreko *19 kamera* bezala, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu du aldi berean. Gaztelanarako itzultzailea eta azalaren egilea Cristina Fernandez izan da.

Atzera ere, Toure da protagonista eta Bilboko San Frantzisko auzoan, "ghetto izugarri horretan", kokatzen da istorioa, baina ez dena. Izenburuko *612 euro* horiek EAEko balia bide gutxi duen jendeak, nola edo hala bizirauteko, erakundeetatik jasotzen duten soldata txikia da. "Izenburuak biziraupenaren muga sinbolizatzen du. Behar-



tsu asko dabil horren atzetik, aurrera egiteko. Baldintza batzuk bete behar dira. Egoera txarrean bizi diren etorkinak dira eta diru kopuru hori oso garrantzitsua da. Eta ez da pentsatzen den bezain erraza diru hori jasotzea. Tourek, protagonistak du jasotzen, ez da hain erraza jasotzea eta ez du soldata bat kobratu" adierazi du Arretxek.

## Eleberriaz

Arretxek esan du berea umorezko nobela beltza dela. "Nobela beltzetan kritika soziala beti osagarri bat da. Oraingoan nahiz eta kritika sozial hori oso agerian utzi nahi ez, ezinbestean agertzen da". Azkar batean irakurtzen den liburu da: "nobela beltzak idazten ditudanean erritmoa da, dudarik gabe, garrantzitsuena. Nobela beltz batek irakurlea harrapatu behar du eta aurrera-aurrera egin behar du". Irakurle askok irakurtzean sentitu dutena aitortu du egileak: "nik liburuak filmak balira bezala imajinatzen ditut".

Mamiari dagokionez, Tourek ustezko anai baten bisita jasotzen du, aldean 6 urteko umea duela. "Afrikarrak oso ospitalarioak dira. Hori lege sakratu bat da. Senide bat etxe aurrean agertzen bazazu ezin duzu kalean utzi. Gero gero-koak". Baina erabaki horren ondorioz ederra liatuko dio ustezko anai horrek eta hor korapilatuko da dena: hilketa, lapurreta, heriotza, droga, sexua, kamera, yonkiak, polizia, sasiabokatuak...

Hala definitu du Arretxek Touren ustezko anaia: jeta hutsa da eta umea lapurretak egiteko aprobetxatzen duena. "Hor kontrasteak bilatu behar dira beti, umearen xamurtasuna eta beste gauza batzuen krudelkeriarekin. Kontraste horiek laguntzen dute nobela girotzen, eta hobeto funtzionatzen".

Eleberriko protagonistak edozein lan hartzen du bizirauteko, zezensuzkoarena, buruhandiarena. Arretxek aitortu du bi ideia horiek Arbizuko eta Etxarri Aranazko festetatik hartu dituela.

Akabera irekiarekin "inpunitatearen ideia" eman nahi du Arretxek. "Segun zeinek zein hiltzen duen, jakinen da, ez da jakinen. Salatuko da edo ez. Zer edo zer larria gertatuko da, edo ez. Hori da errealtate krudela". +www.guaixe.net

# di-da >>

## LEHIAKETAK

### IRURTZUNGO FESTAK BADUTE NOLA IRAGARRI

Helduen mailan aurkeztutako sei proposamenen artean epaimahaiak Zizur Nagusiko Raul Lopez Martinen lana aukeratu du. Haurren mailan, 19 parte-hartzaile izan ziren eta saria Xabier Agustino Jauregik eskuratu du.

### SAKANAKO AURRENEKO PLAY BACK TXAPELKETA

**Agorriaren 6an, 19:30ean jokatu da, Etxarri Aranazko festetan**

21 edizioaren ondoren Etxarri Aranazko festetan ospatzen den play back txapelketa herrikoa izatetik ibarrekoa izatera pasa da. Izena eman nahi duenak kultura@etxarriaranatz.com helbidera idatzi dezake edo lehiaketaren egunetan bertan 18:30ak baino lehen pasa behar da eszenatik. Ordu horretan aurkeztu behar dira musika CDak. Epaimahaia herriko hainbat eragilek osatuko dute. +www.guaixe.net

## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Le bleu est une couleur chaude

Maiatzaren bukaeran izan dugu Cannes hiriko zinema festibala. Komikizaleon artean sorpresa nabaria izan zen, sari potoloena komiki ez oso komertzial batean oinarrituta dagoelako. Ez da arrunta horrelako gauzak gertatzea, oso gutxitan egiten dira pelikula ezagunak eta onak komiki xumeetan oinarrituta. Gertu, ziur aski gure zinematera ere iritsiko da eta.

Bai ba, Cannes-eko urrezko domina, aurkeztutako pelikulen artean hoberena *La vie d'Adèle* izenekoa izan zen epaileentzat. Ezin asko hitz egin pelikulari buruz ez baitut ikusi oraindik, baina bai aitzakia poli-

ta komiki bati buruz hitz egiteko. *Le bleu est une couleur chaude* (urdina kolore beroa da) komikian oinarrituta dago pelikula saritua. Egileak, Julie Maroh, Angoulemeko sari nagusia irabazi zuen 2011. urtean komiki honekin.

Komiki honetan lehena erakarri ninduen marrazkia izan zen. Bai, oso marrazki borobil eta erakargarria dauka komikiak. Ez dakit egilearen beste komikiek ere itxura berdina izango duten, baina lehena erakarri ninduen, azalean bertan, duen trazu eta irudiak sortzeko teknika izan zen. Bestalde, komikian zehar kolore urdina azpimarratzen du etengabe. Askotan grisak bakarrik erabiltzen ditu marrazkietan, bat-batean urdinarekin detailtxo bat

nabarmentzeko. Agertzen den lehenengo adibidea neska baten ilea da, hiri eta pertsonak grisez marraztuta daudelarik. Hori da erabiltzen duen beste trikimailu bat irakurlearen arreta erakartzeko.

Hala ere, ez da txuri-beltzez egin dako komikia. Hiru zatitan banatuta, zati bakoitzak badu kolore ezberdina. Akuairelaren itxura dauka, nahiz eta beste teknika bat erabili. Honela, koloreak askotan urtuta daudela ematen du, bai eta grisak ere, nolabait arreta kolore horietan ez jartzeko. Urdina ordea, oso garbi eta sendo ikusten da.

Oso ondo erabiltzen ditu irudien arteko trantsizioak eta istorioa errazasko ulertzen da irudien bitartez. Irakurtzeko erraza ere bada,

arin deskribatuta, nahiz eta jorratutako gaia gogorra izan daitekeen, batez ere gaur egungo Frantziako giro soziala kontutan izanik.

Urdina buruan dugunean hotzarekin erlazionatzea da gure lehenengo erantzuna. Komikian ordea, protagonistak duen desioekin eta sentimenduekin lotuta dago. Bere barnean darabilen borroka bortitzean, kolore urdinak lagunduta, azkenik irtenbide bat aurkitzen du. Bere bizian duen antsietatea betetzen du urdinarekin eta bere sentimenduekin bat datorren erantzuna aurkitzen laguntzen dio.

Oso komiki goxoa eta latza da aldi berean. Nerabeen gurasoekiko arazoak, sexualitatea eta baita gizar-teak sortzen duen presio soziala



ere lantzen duena. Baina, batez ere, maitasun komiki eder eta liluragarria dela deritot.

Tel.: 948 562 829  
faxa: 948 563 002

**Unamuno**  
ALTSASU

BEHAR DITUZUN HERRAMINTA GUZTIAK!

**xapatero**  
taberna

948 460 162  
Etxarri-Aranatz

**sorgiñak**  
taberna

LAKUNTZA

948 576 357

**LARRAZA**  
**ARDOAK**

Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**

**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**

[guaixekomunikazioa.blogspot.com.es/](http://guaixekomunikazioa.blogspot.com.es/)

## Arbizu, arbasoek aurrera egiteko elkarlana gogoan

**Biharko, larunbaterako, frantsesek herri erdia duela bi mende erre zutela gogoratzen egitaraua prestatu da**

**1** 813ko garagarrilaren 23an frantsesek su eman zioten arbizuarren etxeen erdiei, 45i. Eta guztia basotik ikusi zuten herritarrek. Hangoborda eta artzain txaboletan babestu baitzituzten euren ondasun apurrak eta bizitza. Arbizun utzitako arrasto hori gogora ekartzeko bihar egitarau zabala dute.

Monika Etxeberria 1813-2013 Herri Ekimeneko kideak azaldu duenez, "joan zen urte akaberan arbizuar batzuk elkartu ziren eta pentsatu zuten merezi zuela gogoraraztea 1813an Arbizuk bizi izandakoa. Batzorde bat sortu zen, gero herri ekimena bihurtu dena".

Hasieratik bi gauza garbi izan zituzten. Batetik, egiaz 1813ko garagarrilaren 23an zer gertatu zen jakin beharra zegoela. Xabier Reparaz historialaria izan da udaleko eta elizako artxiboak arakatu dituenak, bibliografia aztertzearekin batera. Azaldu duenez, artxiboetan "garai hartako nahiko dokumentu badaude, zehatzak kasu batzuetan".

Bestetik, ez zuten ospakizun handi bat egin nahi, garaipen militar baten, porrot baten edo ekintza heroikoren batena. Etxeberriak zehaztu duenez, halakorik ez zen izan. "Benetan izan zena izan zen herri baten gogo bizirik irauteko eta berreraikitzeak. Herritar batzuen elkarlana aurrera egiteko. Hori zen benetan gogoratu nahi genuena eta omenaldia egin gure arbasoei. Ikuskaria gerraren nola baiteko salaketa bihurtzen da. Gerrak populazio zibilari ekartzen dizkion sufrimenduak".

### Ikuskizuna

Ikuskizun bat sortzea zuten buruan, baina gauza xumea eta

ahalik arbizuarrik gehienek parte hartzea nahizuten. Testu gutxi-ko ikuskizuna ondu dute. Ikuskizunaren kantu izan behar zuena soinu banda bihurtu da azkenik. Pello Reparazek *Sua, berpiztearen elektro-sinfonia* sortu du. Musika-riak azaldu duenez, "indar handiko ikuskizuna da. Orduan herri honek izandako batasuna islatzen da, baita gaur egun duena ere".

Lau mugimendu ditu ikuskizunak. Aurrenekoan, *Ihesa*, tropen etorrera eta arbizuarren ihesa antzeztuko da. Bigarrenean, *Sua*, frantsesek herria hartu eta hura suntsituko dute. Hirugarrenak, *Dolua*, arbizuarren sentimendua islatzen du. Une horretan erretako etxebakoitzeko emakume bana aterako da, kandela bana eskutan. Eta azken mugimendua, *Berpiztea*, basotik buelta eta herritarren arteko elkartasun sentimendua adierazten du. Herria berriz berreraikitzearen irudikapena da. Ikuskariaren erdigunea dorretxearen aurreko aldea izanen da, Nagusia eta Fernando Urkiak kaleak batzen den tokia.

Katrin Gineazinegotziak azaldu duenez, 200 pertsonen parte hartuko dute ikuskizunean. "Jende guztiak hasieratik baiezkota eman du, jendea gogoz dabil, bai egunean parte hartzeko bai aurretik lan egiteko ere". Emakume talde bat arropak josten arituda, beste talde batek maskarak egin ditu, beste batzuk egitarabak margotzen arituda... "Lan handia dauka eta jendea borondatez aritua" esan du Gineak.

Ondoko herrietako laguntza izan dute. Lakuntzako Pertza elkarteak danborrak utzi dizkiete. Emausko trapuketariak deabruak eta danborroek erabiliko dituzten txaketa guztiak utzi dituzte. Etxarriarrek muntaietan eta lagunduko dute egunean. Bakaikuko Kikek zaldiak eta astoak ekarriko ditu. Guztieieskerak eman dizkiete.



Igandean entsegu orokorra egin zuten. Gastuak estaltzeko kamixetak eta beste salduko dituzte eta zozketak egingo dituzte.



Gaiaren historia liburua, elektro-sinfoniaren CDA eta ipuina argitaratu dituzte.

### Historia gertakariak

1813an Europa guztia gerran zegoen. Napoleonen inperioak Europa osoa kontrolatzen zuen eta bere aurrean zuen bakarra Britaina Handia zen. Ezin dio lurrez aurre egin, baina bai itsasoz. Aurreko urtean Napoleon Errusia inbadituzen saiatu zen. Horretarako penintsulatik tropa gehienak ateratu zituen. Horri esker, ingelesak espainiar eta portugaldarren laguntzaz, lortu zuten tropekin, hilabetez, Gasteizera ino gerturatzea. Gasteizko bataila frantsesek galdu egin zuten. Han zegoen Jose Bonaparte, Napoleonen anaia eta Espainiako errege izendatu zuena. 80.000 soldadu frantziar ihe-

sean ateratu ziren eta ihes horretan ez zeukaten inolako inbententziarik ez ezer. Bidean aurkitu zituzten herririk, herri edo aterpeak, elikagai guztiak suntsitu zituzten, atzetik zituzten ingelesei ezer ez uzteko.

Bide horretan zegoen Arbizu eta arbizuarrek zetorkiena ikusi zuten basora ihes egin zuten. Frantsesek su eman zioten herriari eta 45 etxe erre ziren, herriaren erdia. Arbizuarrek basotik ikusi zuten suntsiketara. Egunetan egon ziren basoan, ondoren ingelesak, portugaldarrak eta espainiarrak pasa zirelako. Herrira bueltatu zirenean, aipagarria da, biztanleen erdiak, familien erdiak beste erdia beren etxeetan hartu zituela. Elkartasun

horri esker biziraun zuen Arbizuk ahal izan zuen moduan.

Frantses okupazioak iraun zuen lau urteetan zor handiak hartu zituzten herritarrek tropak mantendu behar zituztelako. Zor horiek izanda ere lagundu zieten erkideei etxeak berreraikitzen, etxean izan zituzten urtetan. 1827an badakigu oraindik etxe erdiak berreraiki gabe zeudela. Historialariak egindako ikerketa txosten batean argitaratu da. Baina arbizuarren artean informazioa zabaltzeko aurretik udalarekin eta Argibidea gazte elkartearekin hitzaldi bana egin da eta frantses suntsiketaren herria izan zuten ondorioak ezagutzeko Arbizun barnako bisita gidatua egin zen.

### Egitaraua

- 10:00etan** Txistularien kalejira.
- 11:00etatik 13:00etara** Erakusketa. Garaiko jantziak, frantsesen sable bat, balezta...
- 12:00etan** Altxorraren bila. Haurrendako jolasa garaiko galderekin.
- 12:30etan** Aatea, garai hartako produktuekin.
- 13:00etan** Kamisibai edo ipuin kontalaria.
- 13:30etan** Arbizuko abesbatza. Jose Leitzak idatzitako bertsoak eta beste abesti batzuk kantatuko dituzte.
- 15:00etan** Herri bazkaria.
- 22:30etan** Ikuskizuna.

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

*Zatoz gure ardotegia ezagutzera!*

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279  
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Ongi pasa festetan!

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 · ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	astearte	asteazkena	osteguna
euria: 68%	euria: 15%	euria: 35%	euria: 18%	euria: 13%	euria: 15%	euria: 18%	
Min: 9 Max: 16	Min: 8 Max: 20	Min: 10 Max: 13	Min: 7 Max: 14	Min: 7 Max: 16	Min: 8 Max: 17	Min: 8 Max: 17	

## : temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	30.9	6.7	20.3
Altsasu	30	9.5	27.6
Aralar	23.4	4.7	20.2
Urbasa	28	8	18

## : ilargiaren aldia >>

	ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
	23	30	8	16

# Acrycolor

SISTEMA BERRIA

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

## KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

## Zure herriko festen programa diseinatu eta inprimatzen dugu

%5eko deskontua bazkide diren udaletxeei

### Eskatu aurrekontua

948 564 275 / 948 562 107

# >> 11

## galdera

### Irantzu Gonzalez Azpiroz

Dantzaria eta dantza irakaslea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



Elkarrizketa osorik: [www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en).

## Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan

Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria

Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

**1. Nola hasi zinen dantzan?**  
5 edo 6 urte nituela hasi nintzen, Altsasun, euskal dantzekin.

**2. Dantzatzea gustatzen zitzazula konturatu zinen?**  
Euskal dantzak gustatzen zitzazkidan gehien bat. Ballet klasikoaren erematan genuen baina ezzen nire gogokoena. 15 urtekin Iruñean hasi nintzen. Dantza modernoa egin nahi nuen eta Almudena Lobon akademiako zuzendariak esan zidan modernoa egiteko balleta klasikoaren ikasi behar nuela ere. Eta asko gustatu zitzaidan. Ballet klasikoaren karrera egin nuen bertan.

**3. Dantzaren munduan lan egin nahi zenuela konturatu zinen?**  
Nik betidanik nahi izan dut dantzatu. Oso gustura nengo dantzatzen, eta aske sentitzen nintzen. Dantza nire etorkizuna zela argi nuen eta dantzan jarraitzea erabaki nuen. Horretarako Madrileran joan nintzen.  
Jarritako mugak gainditzen joan naiz. Urte baterako joan nintzen eta 5 urte egon naiz Madrilen. Antzerki musikala karrera amaitu nuenean hainbat lan aukera izan nituen, eta irakaslea ere izan naiz. Orain estatu osoan lan egiten duen fundazio batean nago koreografo. Estatu osotik deitzen didate. 700 pertsona zuzendu behar ko ditut iragarki bat egiteko.

**4. Zein estilo dantzatzen duzu?**  
Denetarik. Iruñean ballet klasikoarekin hasi nintzen, baina dantza modernoa eta garaikidea ere ikasten genuen. Madrilen antzerki musikala ikasi dut, eta 3 urte haue-tan claquet, garaikidea, ballet,

funky, interpretazioa eta abesten ikasi dugu. Oraintxe gehien gustatzen zaidana dantza garaikidea da. Balletaren teknikarekin dantza egiten duzu baina norberaren estiloa eta mugimendu libreak sartzen dituzu.

**5. Dantzaren munduan irakaslea izatea aukera bat da?**  
Bai, umea nintzeneko amets bat zen. Altsasun ezin izan naizenez dantzan trebatu, antza ikastea nahi izan dut, gero, Altsasun, dakinana erakusteko.

**6. Hurrei dantza modernoa eta helduei aero dance irakatsiko diezu uda honetan Altsasun.**  
Gogo handia daukat. Oraindik izena eman daiteke, Zelandi kiroldegitik pasatuta.

**7. Zer ikasiko dute hurrek Altsasuko ikastaroan?**  
Dantza hastapena izango da, lehenengo hurbilketa bat. Haien gorputza ezagutzen ikasi dezaten; nola mugitzen den ikas dezaten (uztailaren 2tik 23ra, astelehen, astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 12:00etara). Dantza modernoa ikasiko dute umeek. Modern jazz edo dantza moderno eta funkyren arteko nahasketa egingo dut. Oso saio dibertigarriak izango dira. Dantzaren teknikaren oinarriak erakutsiko dizkiet, baina umeak disfrutatzea nahi dut. Dantza modernoa dantzatzen ikastea ere nahi dut. Koreografia asko egingo ditugu.

Helduekin, berriz, aero dance egingo dugu (uztailaren 2tik 23ra, astelehen, astearte eta ostegunetan, 12:00etatik 13:00etara); aerobic eta

dantza modernoaren edo jazzaren lotura bat da. Lan kardiobaskularra da eta koordinazioa eta oreka ere lantzen dira, baina koreografia dibertigarriekin; eskualderako eskaintza berria. Aerobic saio baten antza dauka, baina dantza urratsak daude. Gorputza tonifikatzea eta kaloriak erretzea bideratuta dago.

**8. Edozeinek parte hartu dezake?**  
Noski. Ez da behar dantzan aritua izatea edo oinarria izatea, ikasteko gogoia eta dantzarekin disfrutatzea nahi izatea baiziki.

**9. Altsasun talentua dago?**  
Talentu handia dago. Duela bi urte Altsasuko jaietako Play Back lehiaketan epaile izan nintzen eta liluratuta gelditu nintzen. Dantza egitea gustatzen zaiela ikusten zen. Irailean ikastaro hauekin jarraitzea espero dut, hori da ideia.

**10. Ume batek gurasoei esaten badie: ama, aita, dantzaria izan nahi dut. Zer esango zenieke?**  
Askok laguntzeko esango nieke, euren ametsa ez apurtzeko. Nire gurasoak nirekin egon ziren beti, eta oso eskertuta nago.

**11. Dantzak diziplina eta esfortzu handia eskatzen du?**  
Askok gorputzaren kontrola behar duzu izan, une bakoitzean zer mugitzen duzun jakin behar duzu. Eta ikusleek mugimendu horiek sentitu behar dituzte. Hori irakatsiko dut Altsasun: gorputza mugitzen eta mugimenduarekin disfrutatzen ikastea, modu dibertigarrian.